# Galdakao

## Gerra Zibilean

## en la Guerra Civil



*Udaberririk gabeko urtea*

# 1936-1937



Izenburua / Título:
Galdakao Gerra Zibilean. 1936-1937, udaberririk gabeko urtea.
Galdakao en la Guerra Civil. 1936-1937, udaberririk gabeko urtea.

Egilea / Autor:
© Galdakao Gogora

Laguntzaileak / Colaboran:
Galdakaoko Udala
Ayuntamiento de Galdakao
Gogora. Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua.
Gogora. Instituto de la Memoria, la Convivencia y los Derechos Humanos

Argitaratzen du / Edita:
Galdakao Gogora eta Galdakaoko udala
Galdakao Gogora y Ayuntamiento de Galdakao

Diseinua eta maketazioa / Diseño y maquetación:
www.orbela.com

Azaleko argazkiak / Imágenes de portada:
© I.Ojanguren. Gipuzkoako Artxibo Orokorra eta Espainiako Liburutegi Nazionala

**Argitalpen honetan jasotzen ditugun zerrendak behin-behinekoak dira, momentu honetara arte ikertutakoaren arabera egindakoak.**
**Los listados que recogemos en esta publicación son provisionales, fruto de las investigaciones realizadas hasta el momento.**

**GALDAKAO BIGARREN ERREPUBLIKAN**
GALDAKAO EN LA SEGUNDA REPÚBLICA 2

- Udal hauteskundeak. 1931ko apirilak 12 / Elecciones municipales. 12 de abril de 1931
- Euskal Autonomia Estatutuaren bozkaketa / Referendum sobre el Estatuto de Autonomía Vasco
- Estatu Kolpea / Golpe de Estado

**GERRAREN HASIERA EUSKAL HERRIAN**
COMIENZO DE LA GUERRA EN EUSKAL HERRIA 5

- Mobilizazioa Galdakaon / Movilización en Galdakao

**AUTONOMIA ESTATUTUA ETA BURDIN HESIA**
ESTATUTO DE AUTONOMÍA Y CINTURÓN DE HIERRO 8

- Behin-behineko lehenengo Eusko Jaurlaritza / Primer Gobierno Provisional de Euskadi
- Bilboko Burdin Hesia / Cinturón de Hierro de Bilbao

**BABESLEKUAK ETA BONBARDAKETAK**
REFUGIOS Y BOMBARDEOS 16

- Babeslekuak / Refugios
- Bonbardaketak / Bombardeos
- Galdakaoren kontrako aire bidezko bonbardaketen ondorioz hildakoak / Muertos por bombardeos aéreos contra Galdakao

**BIZKAIAREN AURKAKO ERASOA ETA 2. DIBISIOKO AGINTE-POSTUA GALDAKAON /**
OFENSIVA CONTRA BIZKAIA Y PUESTO DE MANDO DE LA 2ª DIVISIÓN EN GALDAKAO 22

- 2.Dibisioa / 2ª División
- George L. Steer Galdakaon / George L. Steer en Galdakao
- *Azkatasuna* batailoia / Batallón *Azkatasuna*

**HAURRAK. GALDAKAOTIK ERBESTERA**
NIÑOS Y NIÑAS. DE GALDAKAO AL EXILIO 26

**GERRATIK IHESEAN**
HUYENDO DE LA GUERRA 28

**TROPA FRANKISTAK GALDAKAON SARTZEN DIRA**
LAS TROPAS FRANQUISTAS ENTRAN EN GALDAKAO 30

**ERREPRESIO FRANKISTA**
REPRESIÓN FRANQUISTA 32

- Inuntziaga txaleteko kartzela. Errepresio-zentroa / La cárcel del chalet Inuntziaga. Centro de represión
- Galdakaoko fusilatuak / Fusilados de Galdakao
- Frankismoaren lehenengo urteak Galdakaon / Los primeros años del franquismo en Galdakao

**EMAKUMEAK GERRA ZIBILEAN**
LAS MUJERES EN LA GUERRA CIVIL 36

**MEMORIAREN IBILBIDEAK**
ITINERARIOS DE LA MEMORIA 40

# Galdakao Bigarren Errepublikan

## Galdakao en la Segunda República

1936an, Galdakao 7.000 biztanletik gorako herria zen, hirigune nabarmenik ez zuena. Oraindik ere auzo eta baserri sakabanatuak ziren nagusi, eta nekazaritza-jarduera garrantzitsua zen. Hala ere, XIX. mendearen amaieratik, industria hasiberria ere bazuen; horien artean, Alfred Nobelek 1872an sortutako “La Dinamita” lehergaien fabrika nabarmentzen zen, ondoren Zugatzun kokatuko zena. Horrek eta Bilborako bidegurutze gisa zuen kokapenak, Euskal Herriko Gerra Zibilaren bilakaeran gune estrategiko bihurtu zuen.

En el año 1936 Galdakao era un pueblo de algo más de 7.000 habitantes, sin un núcleo urbano destacable. Predominaban aún los barrios y caseríos dispersos, donde la actividad agrícola era importante. Sin embargo, desde finales del s. XIX, también disponía de una industria incipiente, entre la que destacaba la fábrica de explosivos “La Dinamita” fundada en 1872 por Alfred Nobel, y que posteriormente se ubicaría en Zugatzu. Esto, junto a su ubicación como cruce de caminos hacia Bilbao, le convirtieron en un punto estratégico en el devenir de la Guerra Civil en Euskal Herria.




BFA. Kartografia historikoa

Galdakao. Garaiko mapa. Galdakao. Mapa de época.

## Udal hauteskundeak 1931ko apirilak 12

Galdakaon gehiengo nazionalista bat zegoen, eta horren isla izan ziren 1931ko apirilaren 12an egindako udal hauteskundeak. EAJko 9 zinegotzi, 3 independente eta 2 monarkiko hautatu zituzten; eta alkate Simón Linaza Galarza (EAJ-PNV) izendatu zuten.

## Elecciones municipales 12 de abril de 1931

En Galdakao había una mayoría nacionalista y reflejo de ello fueron las elecciones municipales celebradas el 12 de abril de 1931. En ellas fueron elegidos 9 concejales del PNV, 3 independientes y 2 monárquicos, siendo nombrado alcalde Simón Linaza Galarza (EAJ-PNV).

Gerra Zibilaren aurreko urteak tentsio politiko handikoak izan ziren, eta Galdakao ez zen salbuespena izan, sozialisten, anarkisten, nazionalisten eta tradizionalisten arteko liskarren lekuko izan baitzen. Horietako batzuetan hildakoak izan ziren. Hori izan zen 1933an Usansolon jazotako gertakariaren kasua; izan ere, bertan Izquierda Republicanako emakume bat, Esperanza Zapata izenekoa, eta une horretan Usansoloko Batzokiko balkoian zegoen Iñaki San Miguel haurra hil zituzten; edo 1934an, Galdakaoko Udal Batzorde Tradizionalistako presidente Juan Cruz Ereñoren heriotz bortitza, Zabalganatik Elexalderako igoeraren hasierako zatian.

Los años previos a la Guerra Civil fueron de gran tensión política y Galdakao no quedó al margen, siendo testigo de enfrentamientos entre socialistas, anarquistas, nacionalistas y tradicionalistas. Algunos de aquellos enfrentamientos se saldaron con víctimas mortales. Éste fue el caso del suceso ocurrido en 1933 en Usansolo, donde mataron a una mujer de Izquierda Republicana, llamada Esperanza Zapata, y un niño, Iñaki San Miguel, que en ese momento se encontraba en el balcón del Batzoki de Usansolo; o el caso de la muerte violenta, en 1934, en el primer tramo de la subida a Elexalde desde Zabalgana, de Juan Cruz Ereño, presidente de la Junta Municipal Tradicionalista de Galdakao.



El infortunado niño Ignacio San Miguel Oyarzábal, muerto en los sucesos de Usánsolo.

1933ko maiatzaren 14a




Los sucesos de Usánsolo.—El autobús donde fué muerta doña Esperanza Zapata (cuyo retrato aparece en la parte superior derecha) y heridos el chofer Juan Manuel Ruiz, a la izquierda, y Adolfo Díez. (Fotos Claudio)

Gertakarien berri garaiko prentsan.

Noticia de los hechos en la prensa de época.

## Euskal Autonomia Estatutuaren bozkaketa

1931ko Konstituzioak ezartzen zuen eskualde batek autonomia lor zezakeela baldin eta babesa udalen gehiengoarena bazen, hautesleen bi herenek bozkatua eta Gorteetan onartua.

1933ko azaroaren 5ean Euskal Autonomia Estatutuari buruzko erreferenduma (plebiszitua) egin zen. Galdakaon hautesle gehienek alde bozkatu zuten.

## Referendum sobre el Estatuto de Autonomía Vasco

La Constitución de 1931 establecía que una región podía acceder a la autonomía si el respaldo era de la mayoría de los ayuntamientos, votado por las dos terceras partes de los electores y aprobado en las Cortes.

El 5 de noviembre de 1933 tiene lugar el referéndum (plebiscito) sobre el Estatuto de Autonomía Vasco. En Galdakao la mayoría de los electores votaron a favor.

1933ko azaroaren 19ko hauteskunde orokorretan, zein 1936ko otsailaren 15eko (lehen itzulia) eta martxoaren 1eko (bigarren itzulia) hauteskunde orokorretan Galdakaoko emaitzek gehiengo nazionalista erakusten digute. Estatu mailan Frente Popularra (indar ezkertiarren koalizioa) izan zen garaipena lortu zuena, ezkerreko gobernu errepublikarra eratuz.

## Estatu Kolpea

Hauteskundeen ondoren, herriaren erabaki demokratikoaren aurkako militar faxista talde batek, Emilio Mola, José Sanjurjo eta ondoren Francisco Franco diktadorea buru izango zena, estatu kolpe bat antolatu zuten. Horretarako, Alemaniako gobernu naziaren eta Italiako gobernu faxistaren babesa izan zuten, Adolf Hitler eta Benito Mussolini buruzagiek, armak eta tropak emanez.

Altxamendu militarra 1936ko uztailaren 17an izan zen, Melillan. Espainiako Estatuko zati batetik hedatu zen 18an, eta Nafarroara eta Arabara iritsi zen, Emilio Molaren eta Alonso Vegaren eskutik, uztailaren 19an. Bi lurraldeok, kolpisten menpean geratu ziren. Bizkaian eta Gipuzkoan, ordea, altxamenduak ez zuen arrakastarik izan, eta errepublikari leial mantendu ziren. Lurraldea, orduan, bi bandotan banatuta geratu zen, Gerra Zibilari hasiera emanez.

Tanto en las elecciones generales del 19 de noviembre de 1933, como en las también generales del 15 de febrero (primera vuelta) y 1 de marzo de 1936 (segunda vuelta), los resultados de Galdakao nos muestran una mayoría nacionalista, mientras que a nivel estatal fue el llamado Frente Popular (coalición de fuerzas izquierdistas) quien se hizo con la victoria, formando un gobierno republicano de izquierdas.

## Golpe de Estado

Tras las elecciones, un grupo de militares fascistas contrarios a la decisión democrática del pueblo y liderados por Emilio Mola, José Sanjurjo y por quien posteriormente sería el dictador Francisco Franco, orquestan un golpe de estado. Para ello cuentan con el apoyo de los gobiernos nazi alemán y fascista italiano, con sus líderes Adolf Hitler y Benito Mussolini, quienes les facilitarán armas y tropas.

La sublevación militar tuvo lugar el día 17 de julio de 1936 en Melilla, propagándose por una parte del Estado español el día 18 y llegando a Nafarroa y Araba de la mano de Emilio Mola y Alonso Vega el día 19 de julio. Ambos territorios quedarían bajo el dominio golpista. En Bizkaia y Gipuzkoa, sin embargo, el alzamiento no tuvo éxito, permaneciendo leales a la república. El territorio quedaría entonces dividido en dos bandos, dando comienzo a la Guerra Civil.



LA VOZ

HORAS GRAVES PARA ESPAÑA

Una parte del Ejército de Marruecos se ha levantado en armas contra la República

Nadie, absolutamente nadie, se ha sumado en la Península a este absurdo empeño

Heroicos núcleos de elementos leales resisten a los sediciosos en las plazas del Protectorado

EL GOBIERNO DE LA REPUBLICA DOMINA LA SITUACION

Altxamenduaren albisteak Madrilgo *La Voz* egunkarian (1936/07/18).

Noticias del alzamiento en el periódico madrileño de *La Voz* (18/07/1936).



21

Euzkadi

oticias oficiales del movimiento

as facilitadas por el gobernador acusan que en Bilbao
en el resto de Bizkaya la tranquilidad es absoluta

Mugimenduaren albisteak *Euzkadi* egunkarian (1936/07/21).

Noticias del movimiento en el periódico *Euzkadi* (21/07/1936).

# Gerraren hasiera Euskal Herrian
## Comienzo de la Guerra en Euskal Herria

Behin estatu-kolpea ezagututa, Eusko Jaurlaritzako armada, alderdi politikoen, sindikatu ezkertiarren eta miliziak antolatzen dituzte beste elkarte batzuen babesarekin, azkar abiatu zen lurraldea defendatzera. Eusko Gudarostearen lehen zutabeak eta miliziano boluntarioak Gipuzkoara abiatu ziren, eta bertan gudu-frontea sortu zen Nafarroatik zetozen matxinatuen aurrerapena geldiarazteko. Arabako matxinatuen aurrerapenari dagokionez, guda-frontea edo lehen lerroa Ubide eta Otxandio inguruan ezarri zen.

Una vez conocido el golpe de estado, el ejército en activo del Gobierno Vasco, con el apoyo de partidos políticos, sindicatos de izquierdas y otras asociaciones que organizan milicias, parten rápidamente a la defensa del territorio. Las primeras columnas del Eusko Gudarostea y voluntarios milicianos, partieron hacia Gipuzkoa donde se formó el frente de batalla para detener el avance de los sublevados que venían desde Nafarroa; respecto al avance de los sublevados por Álava, el frente o primera línea de guerra se estableció en la zona de Ubide y Otxandio.



Zutabea Legutioko bidean (*La Tarde* 1936/07/22). ▲

Columna camino a Villarreal (*La Tarde* 22/07/1936).



▲ Milizianoak Otxandioko plazan (*Euzkadi* 1936/07/21).

Milicianos en la plaza de Otxandio (*Euzkadi* 21/07/1936).

Azpeitian, EAJ, EAE/ANV, STV, ENB eta EMBko indar abertzaleek osatutako euskal miliziak antolatzen dira, eta gudari deritzaie. Candido Sasetak agintzen du, Asturiasen borrokan hilko zen nazionalista militar profesionalak. Bestalde, Euskadin Frente Popularra babesten duten indar ezkertiarrak ere borrokarako antolatzen dira, eta hauei miliziano deituko zaie.

En Azpeitia se organizan las milicias vascas formadas por fuerzas nacionalistas del PNV, ANV, STV, ENB y EMB, siendo denominados gudaris sus miembros. Al mando está Cándido Saseta, nacionalista militar profesional que moriría luchando en Asturias. Por su parte, las fuerzas de izquierdas que apoyan el Frente Popular en Euskadi también se organizan para la lucha, siendo sus miembros denominados milicianos.

## Cándido Saseta

Saseta, 1904an Hondarribian jaioa, Eusko Gudarosteko komandante errespetatua izan zen. Asturiasko frontean hil zen 1937ko otsailaren 23an, 150 gudarirekin batera. Bere gorpua ez zen 2008ra arte berreskuratua izan.

Nacido en 1904 en Hondarribia, fue un respetado comandante del Eusko Gudaroste. Murió en el frente de Asturias el 23 de febrero de 1937, junto con 150 gudaris. Su cuerpo no fue recuperado hasta el 2008.



Euskadiko Artxibo Orokorra

# Mobilizazioa Galdakaon

Galdakaon ehunka gazte boluntario mobilizatu ziren, gehienak EAJren batailoi nazionalistetan, eta kopurua oso handia izan zen Ibaizabal, Kirikiño eta antzeko batailoietan. Galdakaoko beste gudari batzuk ere borrokatu ziren beste alderdi nazionalista batzuen zuzendaritzapean, hala nola Gregorio Ibarretxe Etxebarria, lehenengo egunetatik Ventas de Zaraten boluntario aritu zena. Olabarri ANV1 batailoiaren 4. konpainiako kapitaina izatera iritsi zen, Legutioko guduan zauritua izan zen eta, behin Santoñan preso hartuta, Porta Coeliko (Valentzia) kontzentrazio-esparrura eraman zuten. Bertan hil zen 1941ean. Oraindik bere gorpua bertan dago. Galdakoztarrak ere izan ziren Izquierda Republicanako batailoietan miliziano gisa izena eman zutenak. Horixe izan zen Pedro Asua Zubiaur milizianoaren kasua, Zabalbide batailoiko boluntarioa, IR-koa. Bilbon hartu zuten preso 1937an, ondoren Jakara eraman zuten, eta bertan fusilatua izan zen 1938an. Oraindik ezin izan da gorpua dagoen hobitik berreskuratu.

# Movilización en Galdakao

En Galdakao fueron cientos los jóvenes voluntarios que se movilizaron, la mayoría de estos, en los batallones nacionalistas del PNV, llegando a ser su número muy elevado en batallones como el Ibaizabal, el Kirikiño, etc. Otros gudaris de Galdakao lucharían bajo dirección de otros partidos nacionalistas, como Gregorio Ibarretxe Etxebarria, que desde los primeros días combatió voluntario en Ventas de Zarate. Llegó a ser capitán de la 4ª compañía del batallón ANV1 Olabarri, siendo herido en la batalla de Villareal y, una vez apresado en Santoña, fue trasladado al campo de concentración de Porta Coeli (Valencia), donde falleció en 1941. Allí permanece aún  su cuerpo. También hubo galdacaneses que se alistaron como milicianos en batallones de Izquierda Republicana, ese fue el caso del miliciano Pedro Asua Zubiaur, voluntario del batallón Zabalbide, de IR, que fue hecho prisionero en Bilbao en 1937 y trasladado a Jaca, donde fue fusilado en 1938. Aún no se ha podido recuperar su cuerpo de la fosa donde se encuentra.



**Galdakano**

IKURIÑEN ONESPENA.—

▼ 1937ko urtarrila. Ibaizabal batailoiko San Miguel konpainiako gudariak Elexalde-Galdakaon.

Enero de 1937. Gudaris de la compañía San Miguel del batallón Ibaizabal en Elexalde-Galdakao.



Euskadiko Artxibo Orokorra

Ayuntamiento de GALDAKANO.

MOVILIZACION DECRETADA POR EL GOBIERNO DE EUZKADI.

Relación de los reclutas que han verificado su presen[…]

| Número por orden alfabético | Nombre y dos apellidos de los mozos | Fecha de su nacimiento: Día | Mes | Año | Naturaleza de los mozos: Pueblo | Provincia | Domicilio | Nombres: Del padre | De la madre |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Pedro Bilbao Bengoa | 3 | Abril | 1911 | Galdakano | Bizkaya | Zabalea | Pascual | Pilar |
| 2 | Pedro Elorriaga Elexpe | | | " | | | Zamakoa | | |
| 3 | Ignacio Herreras Urtiaga | 10 | Sepbre | " | Galdakano | " | La Cruz | Julio | Juana |
| 4 | Jacinto Ibarra Lecue | 11 | " | " | " | " | Usánsolo | Miguel | Juana |
| 5 | Rufino Ojanguren Arana | 19 | Agosto | " | " | " | Erleches | Luis | Hilaria |
| 6 | Daniel Ruiz Antón | 11 | Dicbre | " | " | " | Usánsolo | Benito | Florenci[…] |
| 7 | Ramón Toyos Ugarte | 27 | Enero | " | " | " | Plazakoetxe | Restituto | Josefa |
| 8 | Francisco Uriarte Itxacha | 22 | Junio | " | " | " | La Cruz | Francisco | Petra |
| 9 | Juan José Urquía Valle | 1 | Abril | " | " | " | Aperribay | José | Margarit[…] |
| 1 bis | Antonio Bengoa Blanco | 16 | Novbre | 1910 | Buenos Aires | Argentina | Usánsolo | Antolín | María |
| 2 bis | José Estébez Cortabarria | 17 | Febrero | 1911 | Galdakano | Bizkaya | Urgoiti | Pedro | Francisc[…] |
| 3 bis | Alejandro Fernandez Ugarte | 15 | Octubre | " | " | " | Zuazo | Narciso | Aurora |

Hasierako hilabeteetan, gazte asko borondatez sartuko ziren batailoietan. 1936ko urrian 1930 eta 1937 arteko ordezkapenen deialdiak hasi ziren, geroago zabaldu zirenak.

En los primeros meses muchos jóvenes se alistarían de forma voluntaria en los batallones. Por el mes de octubre de 1936 comenzaron a llamar a los reemplazos comprendidos entre 1930 y 1937 que posteriormente se ampliaron.

GUDA-ZAINGOA
Departamento de Defensa

GUDARI-TXARTELA
TARJETA MILITAR
205

Izena / Nombre: Vicente Moreno Zorriketa
Saildea / Batallón: «KIRIKIÑO» — Lagundia / Compañía: 4ª Compañía
Jayotetia / Natural de: Galdakano — urtedun / edad: 26 — gudaritu zan eguna / enrolado el día: 16
illea / mes: Diciembre — urtea / año: 1936 — zenbaki onekin / con el número: 67.737
Euzkadi'ko gudaroztean sartu aurretik bizi zan erria / Residencia habitual antes de su ingreso en las milicias de Euzkadi: Galdakano
Kalea / Calle: Barrio Zamakona
Bilbao, 15 illea de Marzo urtea año 1937.
Gudalduteo Burua, El Jefe de Movilización.
Txartel-jabearen izenpena, Firma del interesado.
Vicente Moreno

Kirikiño batailoiko Galdakaoko gudari baten fitxa.

Ficha de un gudari de Galdakao enrolado en el batallón Kirikiño.

Batallón Gordexola Cª Carmelo de Leizaola
Gudaris de Galdakano
ingresados el día 19 de Octubre de 1936

1 Marcelino Emaldi Gorozaga
2 Sabino Elorriaga Arregi
3 Lucio Ezarabal Irazagorri
4 Evaristo Ealo Durañona
5 Juan Eloñaga Mandaluniz
6 Cosme Ereño Beobide
7 Juan Etxandia Iraolagoitia
8 Juan Garai Alkiza
9 Angel Garai Mugira
10 Francisco Goikoetxea Uriarte
11 Calixto Goiri Uriarte
12 Martin Gutubai Agesta
13 Ignacio Herreras Urtiaga
14 Sabino Isasi Dañobeitia
15 Dionisio Iragorri Itzagirre
16 Juan Ibarretxe Larrauri
17 Domingo Jauregi Garai
18 Jesús Linaza Dañobeitia
19 Evaristo Lezarzaburu Egileor
20 Eugenio Marin Alberdi
21 José Miguel Madariaga Ereño
22 Juan Maza Bilbao
23 Luis Moja Bilbao
24 José Mª Meñika Ibarretxe
25 Valentin Olabarrieta Uriarte
26 Pedro Olea Castillo
27 Guillermo Ormetxebarria Lorraño
28 Ciriaco Olabarrieta Uriarte
29 Alejandro Oxangoiti Zamalloa
30 José Olcaza Jauregi
31 Eusebio Orozko Azueta
32 Luis Petralanda Landa
33 Pedro Sagardui Legarra
34 Felix Sagarminaga Legorburu
35 Ruperto Saitua Olabarrieta
36 Doroteo Sagardui Urkixo
37 Pedro Sagarminaga Belaustegi
38 Martin Sagarminaga Kortabarria
39 Alfonso Sautu Larrea
40 José Trueba Villa
41 Silvestre Urkia Valle
42 Francisco Javier Uriarte Itza
43 Luciano Uriarte Legarreta
44 Santiago Uriarte Bikarregi
45 Donato Uriarte Larrinaga
46 Domingo Uriarte Sagardui
47 Ignacio Urutxurtu Valle
48 Pablo Zugazaga Aranburu
49 Venancio Zuricalday Atutxa
50 Agustin Zuricalday Mañuzguren
51 Ciriaco Zuricalday Mañuzguren
52 Juan Pedro Zamalloa Arriaga
53 Felipe Zamakona Argiñano
54 José Mª Zabala Ereño
55 Felipe Zamakona Urkixo
56 Ignacio Axpe Aguirrezabala
57 Jesús Axpe Aguirrezabala
58 José Manuel Lizarralde Zamora
59 Mario San Salvador Ibarra

Galdakaoko gudariak Gordexola batailoiko “Karmelo Leizaola” konpainian 1936/10/13an. Data horren ostean Arana Goiri batailoian sartu ziren, eta bertan iraun zuten gerra amaitu arte.

Gudaris de Galdakao en la Compañía “Karmelo Leizaola”, del batallón Gordexola, el 13/10/1936, seguido a esta fecha se incorporaron al batallón Arana Goiri donde permanecieron hasta finalizar la guerra.

Agiriak: Euskadiko Artxibo Orokorra

# Autonomia Estatutua eta Burdin Hesia

## Estatuto de Autonomía y Cinturón de Hierro

### Behin-behineko lehenengo Eusko Jaurlaritza

1936ko urriaren 1ean Euskadiko Autonomia Estatutua onartu zen Gorteetan. Handik egun gutxira, urriaren 7an, lehenengo behin-behineko Eusko Jaurlaritza eratu zen, eta Lehendakari Jose Antonio Agirre izendatu zuten.

### Primer Gobierno Provisional de Euskadi

El día 1 de octubre de 1936 es aprobado en las Cortes el Estatuto de Autonomía del País Vasco. Pocos días después, el 7 de octubre, se formaría el primer Gobierno Provisional de Euskadi, siendo nombrado lehendakari, Jose Antonio Agirre.




Jose Antonio Agirre 1936ko urriaren 7an sortutako Gobernuarekin.

Jose Antonio Agirre con los miembros de aquel Gobierno formado el 7 de octubre de 1936.

Lehenengo Gobernu hura EAJ, PSE, PCE, Eusko Abertzale Ekintza, Izquierda Republicana eta Unión Republicana alderdietako ordezkariek osatuko zuten, ordura arte izango zen gobernu anitzenetako bat.

Aquel primer Gobierno estaría compuesto por representantes del PNV, PSE, PCE, Acción Nacionalista Vasca, Izquierda Republicana y Unión Republicana, siendo uno de los gobiernos más diversos hasta la fecha.


Pagina 3 EUZKO LANCILLE

Las figuras de hombres que componen el Gobierno provisional de la República de Euzkadi

Declaración ministerial del Gobierno de Euzkadi

A José Antonio de Aguirre

**EAJ/PNV**

Jose Antonio Agirre Lekube (Lehendakaria)

Jesús María Leizaola (Justizia eta Kultura)

Eliodoro de la Torre (Ogasuna)

Telesforo Monzón (Gobernazioa)

**PSE**

Juan Gracia (Gizarte laguntza)

Juan de los Toyos (Lana eta Komunikazioak)

Santiago Aznar (Industria)

**IR**

Ramón María Aldasoro (Merkataritza eta Hornidura)

**UR**

Alfredo Espinosa (Osasuna)

**ANV**

Gonzalo Nardiz (Nekazaritza)

**PCE**

J. Domingo Astigarribia (Herri lanak)

◀

*Euzko Langilea* egunkarian Euskadiko lehenengo behin-behineko Eusko Jaurlaritzari buruz argitaratutako erreportajea.

Reportaje publicado en el periódico *Euzko Langilea* sobre el primer Gobierno Provisional de Euzkadi.

Lehendakariaz gain, Agirre Defentsako sailburu ere izendatu zuten, eta egin zituen lehenengo gauzetako bi Eusko Gudarostea eratzea eta Bilboko defentsa-hesia eraikitzea izan ziren.

Defentsa-lerro hau Alberto de Montaud y Noguerol Ingeniarien komandanteak diseinatu zuen, garai horretan Gerrako Goi Eskolako Fortifikazio irakaslea zenak. Obra guztiko fortifikazio ingeniari bakarra izan zen.

Además de Lehendakari, Agirre fue nombrado Consejero de Defensa y dos de las primeras cosas que hizo fueron la formación del Ejército de Euzkadi y la construcción del Cinturón defensivo de Bilbao.

Esta línea defensiva fue diseñada por el comandante del Cuerpo de Ingenieros Alberto de Montaud y Noguerol, profesor de Fortificaciones en la Escuela Superior de Guerra; el único ingeniero de fortificaciones de toda la obra.

## Bilboko Burdin Hesia

Hasiera batean “Bilboko Plazako Eremu Atrintxeratua” deitu zitzaion, eta beranduago Burdin Hesia izenaz ezagunagoa izango zen. 80 kilometro baino gehiagoko gotorleku eta defentsa sarea zen, Bilbo eta inguruko gune industrial eta estrategikoak inguratzen zituena, matxinatutako armadarengandik babesteko.

Punta Lucerotik (Zierbena), defentsa-lerroa Sodupera iristen zen, hortik Ganekogorta menditik jarraitu eta Ugaora jaitsiz, ondoren Upo mendira igotzeko; handik, Galdakaoko jurisdikziora sartuta, Artetatik igarotzen zen, Usansolora jaitsi eta Bekea, Olabarri, Altamira, Erletxe eta Artola auzoetatik jarraitzen zuen Larrabetzura eta Gaztelumendira iritsi arte, Sopela eta Barrika parean amaitzeko.

## Cinturón de Hierro de Bilbao

Originalmente llamado “Campo Atrincherado de la Plaza de Bilbao”, pasaría a ser conocido posteriormente como el Cinturón de Hierro. Era un conjunto de más de 80 kilómetros de fortificaciones y defensas que rodeaban Bilbao y las zonas industriales y estratégicas de su periferia, para protegerlas del ejército sublevado.

Desde Punta Lucero (Zierbena), la línea defensiva llegaba a Sodupe, de aquí seguía por el monte Ganekogorta y descendía a Ugao, para luego subir al monte Upo; desde allí, entrando a jurisdicción de Galdakao, pasaba por Arteta, bajaba a Usansolo y continuaba por los barrios de Bekea, Olabarrri, Altamira, Erletxes y Artola hasta llegar a Larrabetzu, para finalmente desde la cima de Gaztelumendi prolongarse hasta la costa, donde finalizaba a la altura de Sopela y Barrika.




Eraikitzeko eta ondoren defendatzeko, Burdin Hesia 5 sektoretan banatu zen eta Galdakao 3. eta 4. sektoreen artean zegoen, Ganekogortatik Larrabetzuraino zihoan zatian.

Para su construcción y posterior defensa el Cinturón de Hierro estuvo dividido en 5 sectores y Galdakao estaba integrado entre los sectores 3º y 4º, que abarcaban desde Ganekogorta hasta Larrabetzu.

Kokapen estrategikoa izanik, Galdakao bereziki gotortua izan zen; izan ere, kolpistek Bilborantz egiten zuten aurreratzea Gipuzkoatik zetorren, eta Bilborako sarrera naturala Galdakaokoa zen.

Por su estratégica ubicación, Galdakao fue una zona especialmente fortificada, ya que el avance de los golpistas hacia Bilbao venía desde Gipuzkoa, y la entrada natural hacia Bilbao era pasando por Galdakao.

Montauden agindupean, lanak zuzentzen Pablo Murga eta Alejandro Goicoechea ingeniarien kapitainak zeuden, teknikari talde zabala eta, momentuaren arabera, 2.000 eta 14.000 langile artean.

Galdakoztar askok parte hartu zuten eraikuntza-lanetan. Hala, Nicolas Alonso, Solozarreta auzokoa, umetxoa zela, langile horietako bat izan zen, etxeko astoarekin obretarako materiala eta pertsonentzako ura eramanez.

Bajo el mando de Montaud, dirigiendo las obras estaban los Capitanes de Ingenieros Pablo Murga y Alejandro Goicoechea, contando con un amplio equipo de técnicos y, según el momento, de entre 2.000 y 14.000 trabajadores.

Muchos galdacaneses participaron en su construcción. Así, el galdacanés Nicolás Alonso, vecino del barrio Solozarreta, siendo apenas un niño formó parte de esos trabajadores, llevando en el burro de su casa material para las obras y agua para las personas.



## Nicolas Alonso (1926. Solozarreta, Galdakao)

Bideoa

10 urte besterik ez zituela, Burdin Hesiaren eraikuntzan lan egin zuen.

Con solo 10 años, trabajó en la construcción del Cinturón de Hierro.

*Burdin Hesia egiten hastean, Eusko Jaurlaritza konfiskatzen edo baserrietatik gauzak eroaten hasi zan, behi bikotea, edo idi-bikotea, edo kasu honetan gurea, asto bat zan, eta astoa eroan gura eben. Orduan amak, bakarrik egoana, ez eban astoa ezezagunen eskuetan itxi gura izan. Nik 10 urte nebazan, baina oso zurrauta nengoen, txikitan asko kaskau ninduen eta gero, aita barik, ba ondino be gehiago. Orduan amak esan eustan astoagaz joan behar nebala.*

*Egunez, zein gauez, jarri gintuen beharrean, eta astoagaz Olabarrira joaten ginan. Han materialen biltegia egoan, zementua, burdina, harea. Guk bunkerrak egiten ebilzan lekura eroaten genduan materiala, eta bertan deskargau ondoren, barriro Olabarrira itzultzen ginan.*

*Ez dakit zergaitik, baina hegazkinak etorri eta kaskatzen gintuen. Bonbak jaurtitzen ebezan, metrailau egiten gintuen. Orduan, gauez jarri gintuen beharrean. (…)*

*Al empezar a hacer el Cinturón de Hierro, el gobierno de Euzkadi, se puso a requisar o a llevar de los caseríos, el que tenía pareja de vacas, o de bueyes, o en este caso nuestro, había un burro, y se querían llevar el burro. Entonces mi madre, que estaba sola, no quiso dejar el burro en manos de desconocidos. Yo tenía 10 años, pero estaba muy zurrau, me habían cascau mucho de pequeño y luego sin padre pues todavía más. Entonces mi madre, me dijo que tenia que ir yo con el burro.*

*Nos pusieron a trabajar de día, o a la noche, e íbamos con el burro a Olabarri. Allí había un arsenal de materiales, de cemento, de hierro, de arena. Nosotros llevábamos el material a donde estaban haciendo los bunkers, y allí descargábamos, y otra vez vuelta a Olabarri.*

*No sé porque, pero la aviación venia y nos cascaba. Tiraban bombas, nos ametrallaban. Entonces, nos pusieron a trabajar de noche. (…)*

Pablo Murga kapitaina eta Jose Anglada komandantea Burdin Hesiaren planoak, Wilhelm Wakonigg, Austriako eta Hungariako kontsulari, armada kolpistaren espioitza sare bateko buruzagiari, emateagatik deskubritu eta atxilotu zituzten. Epaitu eta heriotza-zigorrera kondenatu ondoren, fusilatu zituzten.

Alejandro Goicoechea Omar kapitainak, Elorriokoa bera, jarraitu zituen gotortze-lanak. Baina, 1937ko otsailaren 27an, bere lan-bisitetako bat aprobetxatuz, etsaien aldera igaro zen. Bilboko defentsen eta gerra-fronteko beste puntu batzuen planoak eman zituen, baita eraso faxistarako eremu ahul eta zaurgarriak nahita utzi zituen lekuen informazioa ere.

Informazio horri esker, eta aireko eta artilleriako nagusitasunari esker, armada kolpistak Burdin Hesia hautsi ahal izan zuen 1937ko ekainaren 12an, bere ahulguneetako batetik erasoz: Bizkargiko frontea, Urkuluko kordala eta Larrabetzuko Gaztelumendi.

El Capitán Pablo Murga y el comandante José Anglada fueron descubiertos y detenidos por entregar los planos del Cinturón de Hierro al Cónsul de Austria y Hungría, Wilhelm Wakonigg, dirigente de una red de espionaje del ejército golpista. Fueron juzgados y condenados a pena de muerte, siendo fusilados.

Siguió al frente de las obras de fortificación el Capitán Alejandro Goicoechea Omar, natural de Elorrio, quien aprovechando una de sus visitas de trabajo, el 27 de febrero de 1937, se pasó al bando enemigo. Entregó los planos de las defensas de Bilbao y de otros puntos del frente de guerra, así como información sobre los lugares en que, voluntariamente, había dejado zonas frágiles y vulnerables para el ataque fascista.

Gracias a esos datos, y a la superioridad aérea y artillera, el ejército golpista pudo romper el Cinturón de Hierro el día 12 de junio de 1937, atacando por uno de sus puntos débiles: el frente de Bizkargi, cordal del Urkulu y Gaztelumendi, en la vecina Larrabetzu.



Burdin Hesia hautsi zen lekua, Urkulumenditik ikusita, 1937ko ekainaren 12an.

Vistas desde Urkulumendi de la zona donde se rompió el Cinturón de Hierro el 12 de junio de 1937.

*(Gotorlekuak) Adobez, egurrez eta zementuz egin ebezan. Oso ederrak, oso material ona, oso ondo landuak. Gaur egun arte kontserbau beharko ziran, museo gisa bada be.*

*Horretaz oroitzapen gitxi geratzen da, egurrez eta adobez egindakoak usteldu egin diralako berez-berez, eta zementuzkoak zirenak dinamitau egin ebezan. Gogoan dot esaten euskuela dinamitau egingo ebezala, ez gerrako oroitzapenak desegiteko, baizik eta barruan euken burdina aprobetxatzeko.*

*(Las fortificaciones) Las hicieron de adobe, de madera y de cemento. Muy hermosas, muy buen material, muy bien trabajadas. Se tendrían que haber conservado hasta hoy en día, como museo simplemente.*

*De eso queda poco recuerdo, porque los que hicieron de madera y adobe se han podrido, han desaparecido por ley natural, y los que eran de cemento, los dinamitaron. Yo recuerdo que nos decían que los dinamitaban no para deshacer los recuerdos de la guerra, sino para aprovechar el hierro que llevaban dentro. (…) Igual era una disculpa para ir destruyendo los recuerdos.*

*Nicolas Alonso galdakoztarra*



© I. Ojanguren. Gipuzkoako Artxibo Orokorra

▲ El Galloko lubaki lerroa, pinu enborrez estalita.
Línea de trincheras de El Gallo, cubierta de troncos de pino.

Nicolasek kontatzen digunez, Burdin Hesiaren defentsa-egituren estalkietako asko dinamitaz lehertarazi ziren 1948an. Helburua, eraikita zeuden hormigoi armatuko burdina berreskuratzea zen. Proiektu horren buru, berriro ere, Alejandro Goicoechea kapitaina izan zen, gobernu frankista berriaren aginduetara jarrita.

Tal y como nos cuenta Nicolas, muchas de las cubiertas de las estructuras defensivas del Cinturón de Hierro fueron voladas con dinamita en 1948. El objetivo era recuperar el hierro del hormigón armado con el que estaban construidas. Al mando de aquel proyecto estuvo nuevamente el capitán Alejandro Goicoechea, a las órdenes del nuevo gobierno franquista.



Bekelarreko gotorlekuak. Atzealdean Elexalde ikus daiteke.

Fortificaciones de Bekelarre. Al fondo se puede ver Elexalde.



Gotorlekua metrailadore habiarekin eta tiratzaileen galeria Bekeako ermitaren alboan. Atzealdean, Altamira.

Fortín con nido de ametralladora y galería de tiradores junto a la ermita de Bekea. Al fondo, Altamira.



Lubaki estaliaren barrualdea El Gallo inguruan.

Interior de trinchera cubierta en la zona de El Gallo.



Lubaki estaliak Bekelarren.

Trincheras cubiertas de Bekelarre.



Defentsa egituren aurrean dauden alanbre hesiak El Gallo inguruan.

Alambradas frente a las estructuras defensivas de la zona de El Gallo.



Metrailadoreen habia bikoitza Zarratuganan, Bekelarre eta Basozabal artean.

Doble nido de ametralladoras en Zarratugana, entre Bekelarre y Basozabal.

Argazki zaharrak: I. Ojanguren. Gipuzkoako Artxibo Orokorra



Berreskuratutako lubaki estalia Solozarretan, Altamira gainean.

Trinchera cubierta recuperada en Solozarreta, sobre Altamira.



Gotorlekua metrailadore habiarekin eta tiratzaileen galeria Bekeako ermitaren ondoan.

Fortín con nido de ametralladora y galería de tiradores junto a la ermita de Bekea.



Metrailadoreen habia Altamira eta Askarri artean.

Nido de ametralladoras entre Altamira y Askarri.



Babeslekua Altamira eta Askarri artean.

Refugio entre Altamira y Askarri.



Lubaki lerroa Altamira eta Askarri artean.

Línea de la trinchera entre Altamira y Askarri.



Metrailadoreen habia Meatzetan.

Nido de ametralladora en Meatzeta.

# Babeslekuak eta bonbardaketak

Refugios y bombardeos

## Babeslekuak

Herri babesgabeak bonbardatzea izan zen Alemaniako eta Italiako abiazioek egindako esperimentuetako bat gerra hasi zenetik.

Herritarrak aire-eraso horietatik babesteko, Galdakaoko udalak 1936 urte bukaeran, hainbat babesleku eraikitzeko aurrekontuak agindu zituen.

## Refugios

Bombardear poblaciones indefensas fue uno de los experimentos de las aviaciones alemana e italiana desde el inicio de la guerra.

Para proteger a la población de esos ataques aéreos, el Ayuntamiento de Galdakao, a finales de 1936, encargó presupuestos para la construcción de diversos refugios.

*““Eta sirenak hasi ziren. Eta orduen ja ez eustan emoten astirik umeagaz hara joateko… Sartu nintzan horraxe, Tximelarre azpian dagoan errefugiora eta horrexegaitik koiu ninduan hor… Ni etxean geratzen naz eta ez eben jakingo etxean be hantxe hil garala biok”*

*“Y empezaron a sonar las sirenas. Y entonces ya no me daba tiempo de ir allí con el niño; Y entonces entré en ese refugio, el que está debajo de Tximelarre y por eso me pilló allí. Me llego a quedar en casa y no sabrían que allí hubiésemos muerto los dos“*

*Maria Luisa Bilbao galdakoztarra*

## -Babesleku motak-

1936ko abenduaren 28an, Galdakaon eraiki beharreko hiru babesleku-eredu zituen proposamena jaso zuen Udalak:

## -Tipos de refugio-

El 28 de diciembre de 1936 el Ayuntamiento recibió la propuesta con tres modelos de refugios a construir en Galdakao:

### 1. mota / tipo 1

“1. motakoa”, Tximiolarren eta Kurtzean egiteko eskaini zen. 100 metroko tunela egitea zen, 1.500 pertsona inguruti aterpea emateko.

El denominado “tipo nº 1” se ofertó para realizarse en Tximiolarre y en La Cruz. Consistía en cavar 100 metros de túnel para cobijar a unas 1.500 personas.

### 2. mota / tipo 2

“2. motakoa”, Zugatzu, Bengoetxe edo Kurtzerako, 300 pertsona inguru sartzen ziren.

En los denominados “tipo nº 2”, para Zugatzu, Bengoetxe o La Cruz, cabían unas 300 personas.

### 3. mota / tipo 3

400 lagunentzako lekua zuen. Egokia izan zitekeen Bengoetxe, Labeaga eta Usansolorentzat.

Con capacidad para unas 400 personas. Este tipo podía ser adecuado para Bengoetxe, Labeaga y Usansolo.

# -Tximiolarreko babeslekua-

# -Refugio de Tximiolarre-



Tximiolarreko babeslekuaren barrualdea.

Interior del refugio de Tximiolarre.



Tximiolarreko babeslekuaren kanpoaldea.

Exterior del refugio de Tximiolarre.

Gainera, Altamira, Mina edo Agirre bezalako hainbat tokitan, galeriak zulatu zituzten edo inguruko meategietakoak aprobetxatu zituzten gordetzeko, sirenek matxinoen hegazkinak bazetozela iragartzen zutenean babesteko.

Gaur egun, Tximiolarreko babeslekua mantentzen da oraindik.

Hala ere, babesleku ilun horiek ez zuten eragotzi aireko bonbardaketek 40 pertsona inguru hiltzea Galdakaon. Gehienak herriko bizilagunak.

Además, en diversos lugares, como Altamira, La Mina o Agirre, se cavaron galerías o aprovecharon las de las minas próximas para guarecerse cuando las sirenas anunciaban el acercamiento de la aviación facciosa.

Hoy en día, todavía se conserva el refugio de Tximiolarre.

Sin embargo, esos lúgubres refugios no impidieron que los bombardeos aéreos mataran cerca de 40 personas en Galdakao. La mayoría vecinos del pueblo.



Obras municipales de Galdácano
Presupuesto para la construcción de refugios

| UNIDADES DE OBRA | | DESIGNACIÓN DE LAS OBRAS | PRECIOS | | IMPORTES | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Números | Clases | | Ptas. | Cts. | PARCIALES Pesetas | Cts. | TOTALES Pesetas | Cts. |
| 100,00 | m.l. | Refugio tipo nº 1 capacidad total 1500 personas, realizable en Chimelarre y la Cruz sobre el arroyo Recalde | 30 | 00 | 3000 | 00 | | |
| | | Escalera - apertura hueco al refugio en la Cruz etc. | 350 | 00 | 350 | 00 | 3350 | 00 |
| 30,00 | m.l. | Refugio tipo nº 2 capacidad ... | | | | | | |

Babeslekuen eraikuntzari buruzko dokumentua.

Documento sobre la construcción de los refugios.

## Bonbardaketak

Otxandio izan zen gure lurraldean bonbardatu zuten lehenengo herria, 1936ko uztailaren 22an, altxamendu militarretik egun gutxira. Durango, Eibar eta Gernikakoak izango ziren bonbardaketarik gordinenak, Alemaniako eta Italiako hegazkinek frankisten zerbitzura egindako esperimentuen ondorioz. Baina, egiaz, bonbardatutako herriak ugari izan ziren, eta horietako askok aireko eraso bat baino gehiago jasan zituzten.

Horixe izan zen Galdakaoren kasua, euskal lurretan gehien bonbardatu zen herrietako bat. Izan ere, Xabier Irujo historialariaren arabera, Galdakaok gutxienez 28 bonbardaketa jasan zituen.

## Bombardeos

Otxandio fue el primer pueblo bombardeado en nuestro territorio, el 22 de julio de 1936, a los pocos días de la sublevación militar. Durango, Eibar y Gernika serían los bombardeos más cruentos, fruto de los experimentos realizados por la aviación alemana e italiana al servicio de los franquistas. Pero realmente fueron numerosas las poblaciones bombardeadas, y muchas de ellas sufrirían más de un ataque aéreo.

Este sería el caso de Galdakao, una de las localidades más bombardeadas en suelo vasco. Y es que según el historiador Xabier Irujo, Galdakao sufrió al menós 28 bombardeos aéreos.

*“Lehenengo etorten zan Goikoetxea, el alcahuete, letxerue… izen asko euki eben. Gero handik etorten ziran, bela baltzak lez, hirunan-hirunan, zelango Junkerrak, arin darrangadean, arin darrangadean. Hasten ziran kanpaiak joten estu eta kanpaiak estu joten hasten ziranean, peligro. Txakurrek ahausika, gora eta behera, behiak orroaka. Harek zer jakiten eben, harek zer dakarre. Ha izaten zan espektakulu bat… Eta guk burua ez dakigula non bota”*

*“Primero aparecía Goikoetxea, el alcahuete, el lechero… tenía muchos nombres. Luego aparecían por allí, como cuervos, de tres en tres, los Junker, velozmente, metiendo mucho ruido. Empezaban a sonar las campanas, y cuando las campanas sonaban con fuerza, ¡peligro! Los perros nerviosos, venga a ladrar, las vacas no paraban de mugir, como si supiesen lo que venía. Era un espectáculo… Y nosotros sin saber dónde meternos”*

Libe Asua galdakoztarra



1937ko ekainaren 13ko bonbardaketa, Bekea eta El Gallo inguruan.

Bombardeo del 13 de junio de 1937 sobre Bekea y El Gallo.

Argazkia: Italiako Abiazio Museoan Gederiaga Elkarteak lortutakoa

## Plazakoetxeko tragedia

Plazakoetxen Basabe erreka zihoan tunela prestatu zen babesleku gisa. Errekaldetik igaro ondoren, herria zeharkatu eta errepide nagusia gurutzatzen zuen tunel horretan sartzen zen, gero Ibaizabal ibaian amaitzeko. Aipatu dugunez, Tximiolarren beste babesleku bat zulatu zen.

### -1937ko maiatzaren 19a-

Alemaniako zenbait trimotorrek 50 bonba baino gehiago jaurti zituzten Galdakaora, Plazakoetxeko babeslekuko aho bat harrapatuz. Bizilagunak eta osasun-langileak babeslekura zaurituei laguntzera hurbildu zirenean, Alemaniako ehiza-hegazkinek hainbat aldiz metrailatu zuten inguruan zegoen edonor. Bonbardaketaren ondorioz, 16 pertsona hil ziren. Biktimen artean, 11 emakumeak ziren, eta 9 adingabeak.

## La tragedia de Plazakoetxe

En Plazakoetxe se habilitó como refugio el túnel por el que bajaba el arroyo Basabe, que después de pasar por Errekalde cruzaba el pueblo y se adentraba en el mencionado túnel, que cruzaba la carretera general para luego desembocar en el río Ibaizabal. Como hemos mencionado, se excavó otro refugio, cerca, en Tximiolarre.

### -El 19 de mayo de 1937-

Varios trimotores alemanes lanzaron sobre Galdakao más de 50 bombas, alcanzando una de las bocas del refugio de Plazakoetxe. Cuando los vecinos y personal sanitario se acercaron al refugio para socorrer a los heridos, los cazas alemanes hicieron varias pasadas ametrallando a todo aquel que se encontrara en la zona. A consecuencia del bombardeo, murieron 16 personas. Entre las víctimas, 11 de ellas eran mujeres, y 9 menores de edad.



Paxisten besatikeriak

**Atzo Galdakano'n egin ebena**

**Paxistak alkar artu eziñik**



*Eguna* egunkariko albistea (1937/05/20)

Noticia del periódico *Eguna* (20/05/1937)

Bideoa

*"Eta bonba jausi zanean ni egon nintzan beste errefugioan, Tximelarren, eta sartu ziren gurera Manu Carrasco eta Rosita Beitia, beteta guztiz hautsegaz ez ezagututeko moduan. Eta Rositak esaten eban negarrez eta zarataka, esaten eban… ai, le he tenido en mis brazos y me ha arrancado el tiro… la hija Rosetita. Horren explosinoagaz, berari ez jakon pasau ezebe, baia alabatxua euki ebana ondoan eskapau jakon, hilda…"*

*"Y cuando cayó la bomba yo estaba en el otro refugio, en el de Tximelarre. Y llegaron entonces a donde estábamos Manu Carrasco y Rosita Beiti, cubiertos de polvo, como para no reconocerlos. Y Rosita decía llorando y gritando... ai, le he tenido en mis brazos y me ha arrancau el tiro… la hija Rosetita. Con la explosión a ella no le pasó nada, pero la bomba arrancó a su hija de los brazos, y murió..."*

*Maria Luisa Bilbao galdakoztarra*

# Galdakaoren kontrako aire bidezko bonbardaketen ondorioz hildakoak

# Muertos por bombardeos aéreos contra Galdakao

Orain arte, 37 biktima zenbatu dituzte Galdakaoren kontrako aire bidezko bonbardaketen ondorioz. Biktima horietako 29 Galdakaoko bizilagunak ziren.

Hasta la fecha, se han contabilizado 37 víctimas a consecuencia de los bombardeos aéreos que padeció Galdakao. 29 de esas víctimas, eran naturales o vecinos de Galdakao.

| Data | Izen-abizenak | Adina | Jatorria | Bonbardaketaren lekua |
|---|---|---|---|---|
| 1937/04/09 | Iñaki Alberdi Santorcuato | 15 | Berriz | Bekelarre |
| 1937/04/09 | Mikel Amoriza Izpizua | 16 | Galdakao | Usansolo |
| 1937/04/09 | María Begoña Candida Iza | 8 | Galdakao | Usansolo |
| 1937/04/09 | Eusebia Iza Zuazaga | 33 | Bedia | Usansolo |
| 1937/04/09 | Jose Izagirre Orue | 40 | Morga | Olabarri |
| 1937/04/09 | Josefa Zuazaga Aranbarri | 67 | Zornotza | Usansolo |
| 1937/04/09 | Identifikatu gabe | | Galdakao | Galdakao |
| 1937/04/10 | Claudio Hormaetxe Elorriaga | 36 | Lezama | Galdakao |
| 1937/04/11 | Fidel Gallo Unamuno | 21 | Bilbo | Galdakao |
| 1937/04/12 | Julia Gracia Cea | 10 | Santurtzi | Kortederra |
| 1937/04/24 | Casiano Bujedo Miguel | 73 | Abajas (Burgos) | Zugatzu |
| 1937/04/24 | María Extremo San Jose | 19 | Galdakao | Galdakao |
| 1937/04/24 | Ildelfonso Larrondo Leiza | 14 | Galdakao | Zugatzu |
| 1937/04/24 | Maria Arrieta Ilardia | 24 | Galdakao | Zugatzu |
| 1937/04/29 | Jose Fernandez Juncos | | Gijón (Asturias) | Galdakao |
| 1937/05/06 | Claudio Arandia Euba | 30 | Zornotza | Galdakao |
| 1937/05/12 | Petra San José Leonardo | | Valladolid | Galdakao |
| 1937/05/17 | Domingo Olabarria Garate | | | Galdakao |
| 1937/05/19 | Ramona Astigarraga S.S.V. | 35 | Galdakao | Plazakoetxe |
| 1937/05/19 | Encarnación Basarrate Burgoa | 87 | Galdakao | Plazakoetxe |
| 1937/05/19 | Adelaida Etxebarria Ibarra | 38 | Galdakao | Plazakoetxe |
| 1937/05/19 | Sergia Etxebarria Ibarra | 32 | Galdakao | Plazakoetxe |
| 1937/05/19 | María Mercedes Izagirre | 43 | Galdakao | Plazakoetxe |
| 1937/05/19 | Moisés Jugo Abasolo | 11 | Galdakao | Plazakoetxe |
| 1937/05/19 | Mª Begoña Moreno Etxebarria | 6 | New York (AEB) | Plazakoetxe |
| 1937/05/19 | Tomás Lekue Etxebarria | 1 | Galdakao | Plazakoetxe |
| 1937/05/19 | Mª Lourdes Moreno Etxebarria | 3 | Galdakao | Plazakoetxe |
| 1937/05/19 | María Pilar Salaberria Egiluz | 5 | Galdakao | Plazakoetxe |

| Data | Izen-abizenak | Adina | Jatorria | Bonbardaketaren lekua |
|---|---|---|---|---|
| 1937/05/19 | Tomás Sierra Etxeberria | 1 | Galdakao | Plazakoetxe |
| 1937/05/19 | Isabel Tutor Izagirre | 17 | Galdakao | Plazakoetxe |
| 1937/05/19 | Ascensión Ugalde Basauri | 51 | Galdakao | Plazakoetxe |
| 1937/05/19 | Sabino Uranga Ocerin | 15 | Galdakao | Plazakoetxe |
| 1937/05/19 | Mª Manuela Zamakona | 66 | Galdakao | Plazakoetxe |
| 1937/05/19 | Jose Goiarrola Agirre | 13 | Basauri | Plazakoetxe |
| 1937/06/13 | Pedro Alonso Beristain | 30 | Muskiz | Galdakao |
| 1937/06/13 | Eusebia Elorza Charterina | 30 | Dima | Galdakao |
| 1937/06/15 | Luis Gil Castillo | 31 | Rasines (Kantabria) | Bekelarre |

Horiez gain, gutxienez 9 Galdakaoko bizilagun hil ziren gerran, beste herri batzuetan izandako aire-bonbardaketen ondorioz.

Además de estos, al menos 9 residentes en Galdakao murieron a consecuencia de bombardeos aéreos en otras localidades durante la guerra.

| Data | Izen-abizenak | Adina | Jatorria | Bonbardaketaren lekua |
|---|---|---|---|---|
| 1937/03/31 | Juan Pascual Fernandez | 23 | Soria | Elorrio |
| 1937/04/18 | Leon Eguiarte Zearreta | 37 | Zornotza | Begoña (Bilbo) |
| 1937/04/26 | Identifikatu gabe | - | Galdakao | Gernika |
| 1937/04/26 | Identifikatu gabe | - | Galdakao | Gernika |
| 1937/06/29 | Juan Aretxaga Camino | 28 | Laudio | Karrantza |
| 1937/07/02 | Blasa Larrazabal Larraga | 43 | Ugao - Miraballes | Rasines (Kantabria) |
| 1937/07/02 | Jesus Mendiguren | 12 | Galdakao | Rasines (Kantabria) |
| 1937/07/02 | Vicenta Bilbao Landa | 72 | Galdakao | Rasines (Kantabria) |
| - | Francisco Zorrozua Orozco | - | Galdakao | Turtzioz |

Azkenik, Galdakaoko beste 3 biktima zenbatu dituzte, Galdakaon obusen (lurreko artilleria) metraila edo inpaktuen ondorioz hil zirenak.

Por último, se han contabilizado 3 víctimas naturales de Galdakao que fallecieron a consecuencia de impactos o metralla de obuses (artillería de tierra) en Galdakao.

| Data | Izen-abizenak | Adina | Jatorria | Heriotz lekua |
|---|---|---|---|---|
| 1937/06/03 | Pablo Ojanguren Larrabe | 74 | Galdakao | Galdakao |
| 1937/06/15 | Victor de la Mota Murgoitio | 38 | Galdakao | Kurtzea |
| 1937/06/15 | Santiago Uriarte Sagardui | 20 | Galdakao | Aperribai |

# Bizkaiaren aurkako erasoa eta 2. Dibisioko Aginte-postua Galdakaon

## Ofensiva contra Bizkaia y Puesto de Mando de la 2ª División en Galdakao

1937ko martxoaren 31n matxinoen oldarraldia hasi zen Bizkaiaren aurka, frontea Otxandiotik erasotuz. Egun horretan bertan Durango bonbardatu zuten atzeguardian, eta ehunka zibil hil zituzten, Gernikan apirilaren 26an egingo zuten bezala.

Apirilean zehar, hilaren 24an, Intxortako frontea erori eta Elgeta hartu arte, frontea apenas mugitu zen, borroka gogorrak izan ziren arren. Kokagune estrategiko hau erori ondoren, kolpisten aurrerapena askoz azkarragoa izan zen Burdin Hesiraino.

Behin Gipuzkoako mugetako frontea hautsi ondoren, eta eraginkortasuna handitzeko, apirilean, euskal armada dibisio, brigada eta batailoietan berrantolatuko da. Bigarren Dibisioko Aginte-postua Galdakaon ezarri zen, Joaquin Vidal Munarriz koronelaren agindupean. Dirudienez, Leon Asuaren, gaur egungo Peña Santa Cruz-ekoen eta ondoko Pascual Ellakuriaren etxeak erabili zituzten.

El día 31 de marzo de 1937 comienza la ofensiva de los rebeldes contra Bizkaia, atacando el frente por Otxandio. Ese mismo día bombardearían en retaguardia Durango, matando a cientos de civiles como harían igualmente en Gernika el día 26 de abril.

Durante el mes de abril, hasta el día 24 que cae el frente en los Intxorta y toman Elgeta, el frente apenas se movió, pese a los duros combates. Tras la caída de este enclave estratégico el avance de los golpistas hasta el Cinturón de Hierro fue mucho más rápido.

Una vez roto el frente en sus límites con Gipuzkoa y para aumentar su efectividad, el ejército vasco se reorganiza en divisiones, brigadas y batallones durante el mes de abril. El Puesto de Mando de la 2ª División quedaría entonces ubicado en Galdakao, al mando del Coronel Joaquín Vidal Munarriz. Parece ser que estuvieron ocupando las casas de León Asua, actual Peña Santa Cruz, y la colindante de Pascual Ellakuria.

Kurtzea auzoaren bista, udaletxea, Gandasegiko eskolak, Leon Asuaren etxea eta Pascual Ellakuriaren etxearen teilatua ikusten direla.

Vista del barrio de la Cruz, donde se ven el Ayuntamiento, las escuelas de Gandasegi, la casa de León Asua y el tejado de la casa de Pascual Ellakuria.






Erdian Agirre Lehendakaria kanpainako arroparekin, Joaquín Vidal koronelarekin eta, bizkarrez, Alberto Montaud koronelarekin.

En el centro el Lehendakari Agirre con ropa de campaña, en compañía del Coronel Joaquín Vidal y de espaldas el Coronel Alberto Montaud.

## 2. Dibisioa

Vidal koronelak Galdakaoko Aginte-postutik zuzendu zituen 2. Dibisioari zegozkion operazioak. Horien artean Lemoatxaren defentsa nabarmentzen da. 1937ko maiatzaren 29an, kolpistek Lemoatx okupatu zuten, eta hori gertatzen ari zela 4. Euskal Brigadaren agintaria, Francisco Gorritxo, Galdakaoko dibisioko kuartel nagusira joan zen Vidal koronela ikustera. Une horretan, hain zuzen ere, Agirre Lehendakaria agertu zen Aginte-postuan, eta honako hau adierazi zion: *"berriro esfortzu bat egiteko, agian gizakiaz gaindiko esfortzua, posizio estrategiko hori berreskuratzeko etsaia bertan egonkortu baino lehen"*.

Bigarren Dibisoko Aginte-postua Galdakaon egon zen, 1937ko ekainaren 15ean, okupatu baino lehentxeagora arte.

## 2ª División

Desde su Puesto de Mando en Galdakao el coronel Vidal dirigió las operaciones que correspondieron a la 2ª División. Entre ellas destaca la defensa de Peña Lemona. El 29 de mayo de 1937 los golpistas ocupan Peña Lemona, cuando esto ocurría el mando de la 4ª Brigada Vasca, Francisco Gorritxo, se dirigía al cuartel general de la división en Galdakao para ver al coronel Vidal. Justo en ese momento aparece en el puesto de mando el Lehendakari Agirre quien le insta a *"que haga un nuevo esfuerzo, quizá sobrehumano, para reconquistar dicha estratégica posición antes de que el enemigo se consolide"*.

El Puesto de Mando de la 2ª División permaneció en Galdakao hasta poco antes de su ocupación el 15 de junio de 1937.




2. Dibisioko Aginte-postua Galdakaon egon zela erakusten duen garaiko agiria (Euskadiko Artxibo Orokorra).

Documento de la época que demuestra que el Puesto de Mando de la 2ª División estuvo en Galdakao (EAO).

# George L. Steer Galdakaon

George L. Steer gerra-korrespontsal britaniarrak, “El árbol de Gernika” lanean, dio 1937ko apirilean, Elorrioko Memaia mendia erori ondoren, *“Vidal (koronela) negarrez ari zen. Hegoaldeko fronte osoa zegoen hautsita. Elorrio, Elgeta, dena galduko zen. Etxerako bidean Estatu Nagusia bisitatu nuen bere Galdakaoko txaletean”*.

Bertan, Montaud koronelarekin, garai hartan Euskal Estatu Nagusiko burua zenarekin, elkarrizketatu zen. Berak esan zionez, bere helburua zen une hartan bere gizonak pixkanaka Burdin Hesira erretiratzea, tropa eta material galerak ekidinez.

# George L. Steer en Galdakao

El corresponsal de guerra británico George L. Steer, en su obra “El árbol de Gernika”, nos dice cómo en abril de 1937, tras la caída del monte Memaia en Elorrio, el coronel *“Vidal lloraba. Todo el frente meridional estaba roto. Elorrio, Elgeta, todos tendrían que irse. Camino de casa visité el Estado Mayor en su chalet de Galdakao”*.

En él se entrevistó con el coronel Montaud, que entonces era el jefe del Estado Mayor Vasco. Este le dijo que su objetivo en aquel momento era retirar a sus hombres gradualmente hacia el Cinturón de Hierro sin pérdidas de efectivos o material.

Euskal tropek Gandasegiko eskolak ere erabili zituzten. Bertan, kuarteleratuta egon zen Azkatasuna EAE-ANVren 4. batailoia, Eusko Gudarosteko ingeniarien 8. batailoia.

También fueron ocupadas por las tropas vascas las escuelas de Gandasegi. En estas, estuvo acuartelado el 4º Batallón de EAE-ANV Azkatasuna también conocido como el 8ª Batallón de ingenieros del Ejército de Euzkadi.



Galdakao 1937ko ekainaren 16an.
Udaletxea eta telefono-etxea.

Galdakao, 16 de junio de 1937.
Ayuntamiento y casa de telefonos.



Ikuspegia Gandasegiko balkoitik.

Vistas desde el balcón de Gandasegi.

Izan ere, gerra garaian, Galdakaoko eraikin askok ordura arte inoiz ezagutu ez zituzten funtzioak beteko zituzten, kartzela, kuartel, ospitale... bihurtuta.

Y es que durante la guerra muchos edificios de Galdakao pasaron a cumplir funciones que hasta entonces nunca habían conocido, pasando a ser ocupadas como cárceles, cuarteles, hospitales...

# Azkatasuna batailoia

Euzko Abertzale Ekintza-Acción Nacionalista Vasca (EAE-ANV) alderdi politikoa 1930ean sortu zen. Alderdi politiko horrek bere burua akonfesionaltzat jotzen zuen, eta EAJren fundatzaile Sabino Aranaren JEL (Jaungoikoa eta Lege Zaharra) doktrinarekin hausten zuen.

Gerraren hasieran, EAE-ANVk bere batailoiak antolatu zituen. Azkatasuna batailoia (ANV4) 1937. urtearen hasieran sortu zen, eta urte bereko apirilerako 252 gudari zituen kuartelaturik Gandasegiko eskoletan. Gerraren amaieran 1.200 gudari zituen eta komandantea Isidoro Olaizola zen.

Zapatzaileen batailoi bat zen, bere funtzio nagusia gotortze-lanak egitea zelarik. Gotortze-lan ugari egin zituzten lehen lerroan: Zugaztietan, Lemoatxan, Urkulumendin, Gaztelumendin, Santo Domingon, Arraiz mendian eta abar. Normalean gauez lan egiten zuten, matxinoen hegazkinen aire erasoetatik babesteko.

1937ko ekainaren hasieran, matxinatuen bandoak Galdakao hartu zuenean, batailoiaren kuartela Etxebarrin ezarri zen. Azkenean atxilotuak izango ziren Santoñan.

# Batallón Azkatasuna

El partido político Euzko Abertzale Ekintza-Acción Nacionalista Vasca (EAE-ANV) se fundó en el año 1930. Este partido político se declaraba aconfesional, y rompía con la doctrina del fundador del PNV Sabino Arana JEL (Jaungoikua eta Lege zarra; Traducción al castellano: Dios y Ley vieja).

Al comienzo de la guerra, EAE-ANV organizó sus batallones. El batallón Azkatasuna (ANV4) se creó a comienzos de 1937 y, para abril de este mismo año, contaba con 252 gudaris acuartelados en las escuelas de Gandasegi. Al final de la guerra, contaba con 1.200 gudaris y su comandante era Isidoro Olaizola.

Era un batallón de zapadores, cuya función principal consistía en realizar fortificaciones. Llevaron a cabo numerosos trabajos de fortificación en primera línea: en Zugaztieta, Peña Lemona, monte Urkulu, Gaztelumendi, Santo Domingo, Arraiz, etcétera. Normalmente, solían trabajar de noche, para protegerse de los ataques aéreos de la aviación facciosa.

A principios de junio de 1937, con la toma de Galdakao por el bando sublevado, el cuartel del batallón se estableció en Etxebarri. Finalmente acabarían siendo apresados en Santoña.






Zapatzaileen lana. Garaiko prentsaren irudia.

Trabajo de los zapadores. Imagen de prensa de época.

# Haurrak: Galdakaotik erbestera

## Niños y niñas: de Galdakao al exilio

Gerra hasi zenetik, baina, batez ere, 1937ko martxoaren 31n Bizkaiaren aurkako erasoaldi orokorra hasi ondoren, frontetik urrun zeuden herriak erasotzen zituztela eta gerra-fronteak Bilborantz aurrera egiten zuela ikusita, Eusko Jaurlaritza haurrak ebakuatzeko planak egiten hasi zen.

1937ko martxoaren 20an Bermeoko portutik lehen espedizio bat abiatu zen 450 haurrekin Frantzia aldera, Campbell eta Blanche destruktore britainiarretan.

Baina Durangoko (martxoak 31) eta Gernikako (apirilak 26) bonbardaketen ondoren, etsaien hegazkinek herri osoak suntsi zitzaketela erakutsirik, exodoa areagotu egin zen, eta maiatzean eta ekainean ebakuazio-bolada handia izan zen.

Habana, Cabo Corona, Goizeko Izarra... izan ziren adingabeen ebakuazioan parte hartu zuten itsasontzietako batzuk, gehienak Santurtziko portutik abiatuta.

Ya desde el inicio de la guerra, pero sobre todo una vez iniciada el 31 de marzo de 1937 la ofensiva general contra Bizkaia, los ataques sobre pueblos alejados del frente y el avance del frente de Guerra hacia Bilbao, el Gobierno Vasco comienza a hacer planes para la evacuación de la población infantil.

El día 20 de marzo de 1937 partiría del puerto de Bermeo una primera expedición con 450 niños con destino a Francia, a bordo de los destructores británicos Campbell y Blanche.

Pero tras los bombardeos de Durango (31 de marzo) y Gernika (26 de abril), donde la aviación enemiga mostró que podía arrasar pueblos enteros, el éxodo se intensificó, generando en los meses de mayo y junio una gran oleada de evacuaciones.

Habana, Cabo Corona, Goizeko Izarra... fueron algunos de los barcos que participaron en la evacuación de menores, partiendo la mayoría desde el puerto de Santurtzi.

Habana itsasontziaren Ingalaterrara heldu zenean. Hau izan zen haur gehien erbesteratu zituen itsasontzia, 4.000 inguru bidaia bakoitzean.

Llegada del barco Habana a Inglaterra. Este fue el barco que más niños y niñas exilió, alrededor de 4.000 en cada viaje.



Goizeko izarra itsasontziak adingabeen erbesteratzean ere parte hartu zuen, baina txikiagoa zenez, 200 haur inguru zeramatzan bidaia bakoitzean.

Goizeko Izarra también participó en el exilio de los menores, pero era un barco más pequeño en tamaño, llevando a cerca de 200 niñas y niños en cada viaje.



Ebakuazioak, ekainaren 19an, Bilbo erori zen arte, jarraitu zuen eta 19.000 haur eta 7.000 nagusi inguru ebakuatu zituzten.

Ingalaterra, Frantzia, Belgika eta Sobietar Batasuna izan ziren ebakuatutako milaka adingabeak hartu zituzten herrialdeetako batzuk.

Bilbo erori ondoko egunetan milaka pertsonak ihes egin zuten Enkarterrietara eta handik Santanderrera. Euskal Herritik etorritako 100.000 pertsonak baino gehiagok parte hartu zuten exodo handi hartan, eta asko izan ziren gerora Santanderreko portutik abiatuko zirenak.

Portu horietan milaka haur ontziratu ziren eta ebakuatuen artean, asko Galdakaokoak ziren.

La evacuación continuó hasta la caída de Bilbao el 19 de junio, llegando a evacuar cerca de 19.000 niños y niñas y 7.000 adultos.

Inglaterra, Francia, Bélgica y la Unión Soviética fueron algunos de los países que acogieron los miles de menores evacuados.

Los días posteriores a la caída de Bilbao miles de personas huyen hacia las Encartaciones y de allí a Santander. Más de 100.000 personas procedentes del País Vasco participan en este gran éxodo, siendo muchas las que posteriormente partirían desde el puerto de Santander.

Entre los miles de niñas y niños evacuados que embarcaron en estos puertos, muchos serían de Galdakao.


DEPARTAMENTO DE GOBERNACIÓN

ERI-ZAINTZA ZAINGOA

D.ª María Saenz de Cortázar Echevarría 55 años de edad, estado casada natural de Galdácano Vizcaya domiciliada últimamente en Bilbao - Recalde Berri letra K-2º embarcó en el puerto de Bilbao el día ... con dirección a Inglaterra como Refugiada acompañada de sus hijo y nieto Jesús Hernáiz de Cortázar de 15 años Miguel Mauro Gonzalez Hernáiz de 4 años

CONTROL DE EMIGRACION

El Secretario

EAO

Galdakaoko emakume baten erbesteratze-fitxa. 55 urteko emakume bat da, semearekin eta bilobarekin batera erbesteratzea eskatu duena.

Ficha de exilio de una mujer de Galdakao. Se trata de una mujer de 55 años que ha solicitado el exilio con su hijo y su nieta.




EAO


PAIS VASCO
DEPARTAMENTO DE
ASISTENCIA SOCIAL

Aide a l'Enfant Espagnol

G

Expédition à FRANCIA (Isla de Olerón)

Nom GOMEZ NICOLAS

Prenom Pilar

Age 6 ans. Date de naissance 2-3-31 lieu de naissance Vitoria (Alava)

Nome des parents Cristino y Florencia et

Adresse des parents San Andrés Résidence actuelle Galdácano Usánsolo

En cas de urgence prevenir en Espagne Asistencia Social Bilbao

de profesión

Résidence

Organisation syndicale qui le controle

adresse

Responsables de l'expedition: Professeurs, Médecin, Infirmières

Parti de Bilbao le ... Destination Isla de Olerón

Rentré le

Frantziara erbesteratutako neska galdakoztar baten fitxa.

Ficha de una niña galdakaoztarra exiliada a Francia.

# Gerratik ihesean

## Huyendo de la guerra

Gerrak aurrera egin ahala, frontetik hurbil zeuden herrien exodo handia sortu zen. Horrela hasi ziren Bizkaira iristen, gerrako lehenengo hilabete haietan, milaka gipuzkoar errefuxiatu. Geroago, Bizkaiaren aurkako erasoaldia hasi zenean, Bizkaiko herrietako biztanleak izango ziren, gerra hurbil ikusita, euren herrietatik ihes egingo zutenak, norabide finkorik gabe. Galdakaon familia osoak hartu ziren bertako etxe eta baserrietan.

A medida que la Guerra avanzaba, generaba un gran éxodo de las poblaciones más cercanas al frente. Así comenzaron a llegar a Bizkaia, aquellos primeros meses de guerra, miles de refugiados guipuzcoanos. Más tarde, iniciada la ofensiva contra Bizkaia, serían los habitantes de los pueblos vizcaínos, los que acercándose la guerra huirían de sus pueblos, sin rumbo fijo. Galdakao acogió en sus casas y caseríos familias enteras.

*“Lehenengo Galdakaon egon gintzazan, 3-4 gau edo, sabai baten, gure euzuna guztizek, andra guztizek. Eta gero gu handik Zaratamora joan gintzazan”*

*“Primero estuvimos en Galdakao, 3 o 4 días, en un camarote, todas conocidas, mujeres del mismo barrio. De allí marchamos nosotras hacia Zaratamo”*

*Teresa Aresti zornotzarra*

Durango, Eibar eta Gernikako bonbardaketen ondoren, eta frontea gure herrira hurbiltzen ari zela, herritar askok alde egin zuten Galdakaotik, leku seguruago baten bila, gerratik urrun. Asko Santanderrera joan ziren. Bideak jendez bete ziren Bilbo erori aurreko egunetan.

Tras los bombardeos de Durango, Eibar y Gernika, y acercándose el frente a nuestro pueblo, numerosos vecinos y vecinas abandonarían Galdakao, en busca de un lugar más seguro, alejado de la guerra. Muchos viajarían hacia Santander. Aquellos caminos se llenaron de gente los días anteriores a la caída de Bilbao.



© BNE



## Kontxi Belandia
## (1929 . Bekelarre)

" Gerra etorri zanean, joan gintzazan ibilten-ibilten, Santanderrerantza. (….) Esan euskuen, Santanderren dagozala barkuak"

Familia baserritar batean jaioa. 4 anai arreba izan ziren. Oso gazterik harrapatu zuen gerrak. Frantziara ebakuatua izan zen ama eta anai-arrebekin batera. Rouen egon ziren, Normandian.
3 urteren buruan, Galdakaora itzuli behar izan ziren, II. Mundu Gerra hasi zelako. Galdakaora heltzean, konturatu ziren etxe gabe gelditu zirela.

*"Gerra etorri zanean, joan gintzazan ibilten-ibilten, Santanderrerantza. (….) Esan euskuen, Santanderren dagozala barkuak. Ba, joan gintzazan hara, eta badakizu zer izan zan? Ja ez zala egon barkurik, danak joanda. Badakizu zer egin euskuen? Imini euskuen tren bat joateko Gijonera. (…).*

*Inglaterrara goazela eta Frantzian agertu gintzazan. (…) Han 3 urte emon genduzan. Frantzesa ikasi neban, baina ez naz gogoratzen, ze gero amatxuk egiten euskun dana euskeraz, eta ondo egin eban, ze hori da geurea. (…)*

*Eta 3 urtean, buelta Galdakora. Badakizu zegaitik etorri gintzezan? Hasi zan gerrea Frantzian, eta etxera etorri eta etxe barik."*

Nacida en el seno de una familia baserritar, fueron 4 hermanos. Era muy joven cuando empezó la guerra. Junto a su madre y hermanos, fue evacuada a Francia. Estuvieron en Roue, Normandia. Regresarían a Galdakao 3 años después, al inicio de la Segunda Guerra Mundial. Y al regresar se darían cuenta que les habían confiscado su casa.

*"Cuando se acercó la guerra a Galdakao huímos a pie hacia Santander. (...) Nos dijeron que en Santander estaban los barcos, y ¿sabes lo que nos pasó? que ya no quedaban barcos. Y entonces, nos metieron en un tren que partía hacia Gijón. (...)*

*Pensando que íbamos a Inglaterra, aparecimos en Francia. (...) Allí estuvimos 3 años. Aprendí francés, pero ya se me ha olvidado, porque la amatxu nos hablaba siempre en euskera, y hacia bien, que para algo es nuestro idioma. (...)*

*Y al de 3 años, de vuelta a Galdakao. ¿Sabes por qué volvimos? Porque comenzó la guerra en Francia. Y de vuelta en casa, nos encontramos con que no teníamos casa."*

Bideoa

2016. urtean Herri People programarako grabatutako bideoa. Galdakaoko amama Kontxiren gerra garaiaz.

Bideo grabado en el programa *Herri People* en 2016. Sobre la guerra en Galdakao con amama Kontxi.

# Tropa frankistak Galdakaon sartzen dira

## Las tropas franquistas entran en Galdakao

1937ko ekainaren 11n, Bizkargi ondoko Urkulumendi harturik, eta ekainaren 12an Burdin Hesia hautsi ondoren, Urrusti-Gaztelumendi kordalean, Gamiz-Fika eta Larrabetzu artean, matxinatutako tropek Bilborantz eta inguruko udalerrietarantz aurrera egitea ekidin ezina izan zen.

Ekainaren 13an, matxinatutako tropak Larrabetzun sartu ziren eta hilaren 14an Santa Marina gainean, Galdakao eta Bilbo artean, plantatu ziren, Artxandako guduari hasiera emanez.

Tras la toma del monte Urkulu, situado a los pies del Bizkargi el día 11 de junio de 1937 y posterior ruptura del Cinturón de Hierro el 12 de junio en el cordal de Urrusti-Gaztelumendi, entre Gamiz-Fika y Larrabetzu, el avance de las tropas sublevadas sobre Bilbao y los municipios colindantes fue inevitable.

El día 13 de junio, las tropas sublevadas entran en Larrabetzu. El día 14 se plantan en el alto de Santa Marina, entre Galdakao y Bilbao, dando comienzo a la batalla de Artxanda.

## 1937ko ekainak 15

Nafarroako I. Brigadako tropek, García Valiño teniente koronelaren agindupean, Galdakao hartu zuten 1937ko ekainaren 15ean, Santa Marinatik jaitsita. Bilborantz joan ez zitezen, Usansoloko Torreondo eta Plazakoetxeko zubiak dinamitatuak izan ziren, baina ez Puentelatorre, Torrezabal eta Mercadillo zubiak, matxinoek berorietatik Ibaizabal ibaia igaro zutelarik. Bekea eta Usansolo aldean, Burdin Hesia defendatzen zuten tropa leialek Upo mendi ingururantz alde egin behar izan zuten berehala, eta zaurituak Santotxikerrako ermita ondoan geratu ziren, faxistek guztiak exekutatu zituztelarik. Gorpuak bertan geratu ziren eta ez zieten lurperatzen utzi. Lekukoen testigantzaren arabera, erraildako 20 lagun inguru zenbatu ziren.

## El 15 de junio de 1937

Las tropas de la Iª Brigada Navarra, al mando del Teniente Coronel García Valiño, toman Galdakao el día 15 de junio de 1937, bajando desde Santa Marina. Para evitar su avance hacia Bilbao, los puentes de Torreondo, en Usansolo, y el de Plazakoetxe, habían sido dinamitados, pero no así los de Puentelatorre, Torrezabal y Mercadillo, donde los rebeldes pasaron el Ibaizabal. Las tropas leales defensoras del Cinturón de Hierro en la zona de Bekea y Usansolo tuvieron que retirarse rápidamente hacia el monte Upo y los heridos quedaron junto a la ermita de Santotxikerra, siendo todos ejecutados por los fascistas. Los cuerpos quedaron allí y no se permitió que los enterraran. Por testimonio de testigos el número de asesinados que se contaron fueron cerca de 20.

Tropa kolpistak Plazakoetxen, 1937/06/15.
Tropas golpistas en Plazakoetxe 15/06/1937.



Agintari kolpistak Juan Bautista Uriarten Inuntziaga txaletaren ondoan 1937/06/16.
Mandos golpistas en Juan Bautista Uriarte junto al chalet Inuntziaga 16/06/1937.







Usansoloko Torreondo zubia, dinamitatuta tropa frankisten aurrerapena geldiarazteko.

Puente de Torreondo en Usansolo, dinamitado para frenar el avance de las tropas franquistas.

1937/06/15 Tropa frankistak Galdakaon sartu ziren eguna. Plazakoetxetik nola sartzen diren ikus daiteke.

15/06/1937. El día que las tropas franquistas entraron en Galdakao. Se puede ver su entrada por Plazakoetxe.

Plazakoetxe zubia, dinamitatuta tropa frankisten aurrerapena geldiarazteko.

Puente de Plazakoetxe, dinamitado para frenar el avance de las tropas franquistas.



1937/06/17 Tropa frankistak parapetatuak Aperribain, atzealdean, Aperribai Jauregia.

17/06/1937 Tropas franquistas parapetadas en Aperribai, al fondo, el Palacio de Aperribai.



Argazkiak © BNE

1937/06/17. Agintari frankistak El Galloko zutabearen alboan.

17/06/1937. Mandos franquistas en la columna de El Gallo.





EL DIARIO VASCO

MIERCOLES, 16 DE JUNIO DE 1937

SAN SEBASTIAN

FRANQUEO CONCERTADO

**Es atravesado el río Ibaizábal (Nervión) por Galdácano**

DESPUES DE LA OCUPACION DE PLENCIA, GORLIZ, GATICA, BARRICA..., SE VEN AMENAZADOS SERIAMENTE SOPELANA, URDULIZ Y BERANGO

GALDACANO FUE TOMADO AYER TARDE EN UN MARAVILLOSO ASALTO REALIZADO POR NUESTRAS TROPAS

**Tres atentados que ponen de manifiesto el salvajismo de los rojos y los separatistas**

# Errepresio frankista

Represión franquista

## Inuntziaga txaleteko kartzela. Errepresio-zentroa

Tropa frankistak Galdakaon sartu zirenean dozenaka gudari eta miliziano atxilotu zituzten herrian bertan edo inguruko mendietan. Askorentzat, bizitzako egunik krudelenak hasten zitzaizkien.

Nafarroako 1. brigadaren agindupean, Rafael Garcia Valiño teniente koronelak Inuntziaga txaletean (gaur egungo Iturrondo Plazan kokaturik zegoen) ezarri zuen bere Agintepostua, eta atzeko baratzea, harresi garai batez inguratua zegoena, behin-behineko presondegi bihurtu zuen.

## La cárcel del chalet Inuntziaga. Centro de represión

Cuando las tropas franquistas entran en Galdakao decenas de gudaris y milicianos fueron detenidos en el propio pueblo o en los montes cercanos. Para muchos y muchas, empezaban los días más cruentos de sus vidas.

Al mando de la 1ª Brigada Navarra el Teniente Coronel Rafael Garcia Valiño, instaló su Puesto de Mando en el chalet Inuntziaga (en la actual Plaza Iturrondo) y convirtió su huerto trasero, que estaba rodeado por un alto muro, en prisión provisional.



Argazkiaren erdian, errekete-txapelarekin eta Inuntziaga txaleteko sarreran eserita, García Valiño teniente koronela eta bere Estatu Nagusia.

En el centro de la foto con la boina de requeté y sentado en la entrada del chalet Inuntziaga, el teniente coronel García Valiño y su Estado Mayor.







Presoak Galdakaora iristean, herriko emakumeak preso galdakoztarrez kezkatuta falangista bat ondoan dutelarik eta presoak Inuntziaga txaleteko patioan.

Prisioneros a su llegada a Galdakao, mujeres del pueblo preucupadas por los prisioneros junto a un falangista y presos galdakoztarras en el patio del chalet Inuntziaga.











Argazkiak. 1936ko ekainaren 16a. © BNE

Armen entrega eta begirada tristeak Inuntziaga txaletaren atxiloketa-zentroan.

Entrega de armas y miradas tristes en el centro de detención del chalet Inuntziaga.

En Galdácano, he encontrado esta mañana a más de 400 prisioneros y evadidos. Entre estos últimos figuraban un sargento, un cabo y otro guardia de Asalto y un suboficial y un sargento y dos guardias civiles.

**Más de 400 prisioneros y evadidos se encontraron en Galdácano.**

Galdakaon preso hartutako 400 pertsonen inguruko albistea. *Diario Vasco*. 1937/06/18

18/06/1937. Noticia en el *Diario Vasco* sobre la detención de 400 presos en Galdakao.

Atxiloketa-zentro horrek laster gainezka egin zuen, eta ekainaren 19an kolpistek Bilbo hartu ondoren, presoak Larrinagako edo Orue txaleteko kartzeletara, edo Zornotzako Karmelora edota Mutrikuko Saturrarango emakumeen kartzeletara eraman zituzten.

Este centro de detención pronto quedó saturado y tras la toma de Bilbao por los golpistas el día 19 de junio, los prisioneros fueron trasladados a cárceles como la de Larrinaga o la de chalet de Orue en Bilbao, la del Karmelo en Amorebieta o a la prisión de mujeres de Saturraran en Mutriku.

# Galdakaoko fusilatuak

Atxilotuetako asko batera epaitu eta, ondoren, fusilatu egin zituzten, galdakoztar gehienak Derioko hilerriko horman.

Fusilatuen artean galdakoztar batzuk zeuden, euren ideologiagatik soilik, sententziaren arabera “gorri separatista” zirelako, exekutatuak izan zirenak.

# Fusilados de Galdakao

Muchos de los detenidos serían juzgados sumarísimamente y posteriormente fusilados, la mayoría de los galdacaneses en el muro del cementerio de Derio.

Entre los fusilados se encontraban varios galdacaneses que únicamente por su ideología, según sentencia “rojo separatista”, fueron ejecutados.

| Izen-abizenak | Adina | Fusilatze-data | Lekua |
|---|---|---|---|
| Arostegi Bilbao, Ángel | 29 | 1937/09/07 | Bilbo |
| Mandaluniz Ealo, Valentín | 30 | 1937/09/07 | Bilbo |
| Zabala Bilbao, José Luis | 30 | 1937/09/07 | Bilbo |
| Zelaia Sagardui, Santiago | 39 | 1937/09/07 | Bilbo |
| Estevez Cordoba, Rogelio | 51 | 1937/12/14 | Bilbo |
| Hormaeche Eguiluz, Andrés | 31 | 1937/12/16 | Bilbo |
| Gomez Rios, Restituto | 35 | 1938/01/11 | Santoña (Santander) |
| Asua Zubiaur, Pedro | 21 | 1938/02/07 | Jaca (Huesca) |
| Egileor Arostegi, Dei | 21 | 1938/05/05 | Bilbo |


Pedro Asua Zubiaur


Ángel Arostegi Bilbao


Valentín Mandaluniz Ealo


Restituto Gomez Ríos

Galdakaoztar batzuk errepublikarrek eragindako indarkeria ekintzen ondorioz hil ziren  (Bilboko kartzela-ontziei eta kartzelei erasoz...): Fabian Legorburu, Jose Maria Rekalde, Julian Etxebarria, Leoncio Goyegana, Roque Mendia, Fermin Gorostiza eta Matias Lumbreras.

También murieron otros galdacaneses en actos violentos a causa de las fuerzas republicanas en diferentes circunstancias (asalto a los barcos y cárceles de Bilbao): Fabián Legorburu, José María Rekalde, Julián Etxebarria, Leoncio Goyegana, Roque Mendia, Fermín Gorostiza y Matías Lumbreras.

# Frankismoaren lehenengo urteak Galdakaon

Errepresioa ez zen fusilamenduekin amaitu, eta galdakoztar askori oso espetxe-zigor gogorrak ezarri zizkieten. Horien artean, gerra garaian udala zuzendu zuen udal batzarreko zinegotziak espetxeratu zituzten urte luzez, eta funtzionario publiko gehienak depuratu zituzten.

# Los primeros años del franquismo en Galdakao

La represión no terminó con los fusilamientos y muchos galdacaneses fueron condenados a durísimas penas de prisión. Entre ellos, los concejales de la junta municipal que dirigió el ayuntamiento durante la guerra fueron encarcelados durante largos años, y gran parte de los funcionarios públicos fueron depurados.


AYUNTAMIENTO DE GALDÁCANO

SECRETARÍA

AÑO DE [illegible]

Sección de GOBERNACION

Negociado de INSTRUCCION PUBLICA

OBJETO

OBJETO

Expediente que contiene las comunicaciones, informes y demás antecedentes facilitados por la Alcaldía, a efectos de la DEPURACION de los Maestros y Maestras de la Anteiglesia.

Galdakaoko Elizateko maisu-maistren depurazioari buruzko espedientea.

Expediente sobre la depuración de los maestros y maestras de la Anteiglesia de Galdakao.


Ruego a usted que, de manera reservada y confidencial y a la mayor brevedad, se sirva informarme si D.ª Asunción Garriño maestra de la Escuela de barriada de Bengoechea de esa localidad, ha desempeñado cargo alguno o colaborado con los denominados Junta de Defensa de Vizcaya, Gobierno de Euzkadi o de Valencia y enfrente del Movimiento Nacional; si se le han conocido actua-

Preso hartutako gudari eta milizianoak kontzentrazio-esparruetan giltzapetu zituzten.

Gregorio Ibarretxe Galdakaokoa zen, eta Valentziako Porta Coeli kontzentrazio-esparruan hil zen tuberkulosiak jota. Horrek adierazten digu atxiloketa-zentro horietako bizimoduaren gogortasuna. Beste preso batzuk langileen batailoietara bidali edo gerra osoan frankisten alde borrokatzera behartu zituzten. Batzuek garaiz ihes egin ahal izan zuten, erbestea aukeratuz, eta asko ez ziren inoiz herrira itzuliko.

Los gudaris y milicianos apresados fueron encerrados en campos de concentración.

Gregorio Ibarretxe, natural de Galdakao, murió por tuberculosis en el campo de concentración de Porta Coeli en Valencia, lo que nos da idea de la dureza de la vida en estos centros de detención. Otros presos fueron destinados a batallones de trabajadores o fueron obligados a luchar en el bando franquista el resto de la guerra. Algunos pudieron escapar a tiempo y optaron por el exilio, pero muchos jamás volverían a su pueblo.

# Emakumeak Gerra Zibilean

## Las mujeres en la Guerra Civil

Emakumeek gerra isilean, itzalpean, atzeguardian eman zutela badirudi ere, gerrak kolpatu zituen eta bizitza erabat aldatu zien. Gutxi ikertu izan da emakumeek gerran bizi izan zutenaz, baina zenbat eta gehiago ikertu, beraien betebeharra anitza eta oso garrantzitsua izan zela argi geratzen da. Hemen, Galdakaon Gerra Zibilak kolpatu zituen emakume guztiak omendu nahi ditugu.

Errepublika garaian emakumeak pizkunde antzekoa bizi izan zuten. Gobernu berriak beraien gaitasun eta eskubideak onartu zituen eta horrek emakume mugimendua indartu zuen. Emakume Abertzale Batza antolatu zen Galdakaon eta 1933an emakumeak bozkatzeko eskubidea izan zuten lehenengoz.

Gerra hasi zenean, frontera abiatu ziren emakume gazteak ere izan ziren, eta ez gutxi. Batez ere, miliziano sozialistak, komunistak eta anarkistak ziren. Horien artean ditugu Casilda Hernandez Vargaz zizurkildarra edota Julia Hermosilla Sagredo, Sestaoko anarkosindikalista, besteak beste. Gutxi batzuk izan baziren ere, gerra erreportariak, mitinlariak edo espioiak ere izan ziren.

Gizonezko gazte gehienak frontera abiatu zirenean, emakumeak izan ziren gudari eta milizianoen arropak eta ikurrak josi zituztenak, eta beraiek ere, lantegi eta etxeetan gizonezkoek utzitako lanei aurre egin behar izan zietenak. Gure herrietara errefuxiatuak heltzen zirenean, emakumeak izan ziren haien harreraz eta arretaz arduratu zirenak. Burdin Hesiko eraikuntza-lanak hasi zirenean ere, emakume asko izan ziren defentsa lerroko lanetan.

Siempre nos han contado que las mujeres vivieron la guerra en silencio, a la sombra de los acontecimientos, en la retaguardia... Pero la guerra las golpeó y les cambió la vida por completo. Se ha investigado poco sobre la mujer en la Guerra Civil, pero cuanto más se investiga más claro queda que su deber fue múltiple y muy importante. Queremos homenajear a todas aquellas mujeres que fueron golpeadas por la Guerra Civil.

Durante la República las mujeres vivieron un pequeño renacimiento. El nuevo gobierno reconocía sus capacidades y derechos y esto hizo que se reforzara su movimiento. Las mujeres tuvieron derecho a voto por primera vez en las elecciones de 1933 y en Galdakao tambien se organizó el grupo de Emakume Abertzale Batza.

Al inicio de la guerra fueron varias, y no pocas, las mujeres que partieron al frente. Eran sobre todo milicianas voluntarias socialistas, comunistas y anarquistas. Entre ellas se encontraba la zizurkildarra Casilda Hernández Vargaz o Julia Hermosilla Sagredo, anarcosindicalista de Sestao. Aunque fueron unas pocas, también hubo reporteras de guerra, mitineras, mujeres espías...

Cuando la mayoría de los hombres partieron al frente, fueron también las mujeres las encargadas de coser sus uniformes, sus insignias. Ocuparon también los puestos de trabajo dejados por estos, tanto en las fábricas como en casa. Con la llegada de los refugiados a nuestro pueblo, fueron las encargadas de organizar su acogida. Incluso cuando se iniciaron las obras de construcción del Cinturón de Hierro, fueron numerosas las mujeres que partirían a fortificar.



Emakumeak gotortze lanetan/
Mujeres fortificando



Euskadiko Artxibo Orokorra

Gotortze lanetako mobilizazioa
Movilización para las labores de fortificación

Era berean, badakigu Galdakaoko emakumeak La Dinamitako lantokian lehergaiak egiten ibili zirela. Gizonezkoak bezala, beraiek ere, soldadu gisa azaltzen ziren garai hartako agirietan.

Se ha sabido también que las mujeres de Galdakao se dedicaron a fabricar explosivos en la fábrica de La Dinamita. Al igual que los hombres, estas figuraban como soldados en los documentos de aquella época.



MAXAM. S.A.



COMISIÓN MILITAR
DE
INCORPORACIÓN Y MOVILIZACIÓN
INDUSTRIAL

Militarización de Fábricas

*Por la presente notifico a V. que con asimilación a la categoría de* soldado *, ha sido V. militarizado á todos los efectos relacionados con el desempeño de su misión en los talleres* Sociedad A. Española de la Dinamita-Galdacano-Vizcaya-

La Dinamitako lantegian emakumeak lehergaiak obusetan sartzen. eta garai hartako Galdakaoko emakume langile baten agiria.

Mujeres cargando con explosivos los obuses en la fábrica de La Dinamita y el documento de aquella época de una trabajadora de Galdakao.

Behin Galdakao kolpisten eskuetan eroririk, emakumeek ere gizonek besteko errepresioa jasan zuten. Hamarnaka emakume espetxeratu zituzten, Bilboko Orue txaletean, Larrinagako kartzelan, Zornotzako Karmelo ikastetxean zein Saturrarango emakumeentzako presondegi ezagunean.

Gerrako frontea herrietara hurbildu ahala, asko izan ziren bortxatutako neska gazteak ere, beraien testigantzak gutxi ezagutzen badira ere. Gudarien ama edo emazte izateagatik, asko izan ziren errepresioa jasan zuten emakumeak. Gerra aurretik irakasle izandakoak ere kasu batzuetan depuratuak eta erbesteratuak izan ziren.

Una vez que Galdakao cayó en manos de los golpistas, las mujeres también sufrieron la misma represión que los hombres. Decenas de mujeres fueron encarceladas, en el chalet Orue de Bilbao, en la cárcel de Larrinaga, tanto en el colegio Karmelo de Amorebieta como en la conocida prisión para mujeres de Saturraran.

A medida que el frente de guerra se acercaba a los pueblos, fueron más de una las jóvenes violadas, cuyas historias se silenciaron. Madres de gudaris, esposas, hijas... muchas mujeres sufrieron la represión franquista. Las que habían sido profesoras antes de la guerra también fueron en algunos casos depuradas y desterradas.

Hona hemen, kartzelatik igarotako Galdakaoko emakumeen zerrenda:

Aquí se recoge la relación de mujeres de Galdakao que fueron encarceladas:

| Izen-abizenak | Adina | Atxilo. data | Sententzia | Bestelakoak |
|---|---|---|---|---|
| Sagasti Ibañez, Juana | 78 | 1937/07/06 | 6h 1e | 1938/01/01 Askatua |
| Aramburu Larizgoitia, Julia | 44 | 1937/07/25 | 6u 1e | Saturraranen egondakoa |
| Aranburu Lorizgoitia, Sofía | 33 | --- | 2u | --- |
| Ealo Ereño, Concepción | 21 | 1937/08/03 | 6h 1e | Saturraranen egondakoa |
| Jauregui Emaldi, Virginia | 30 | 1937/08/03 | 6h 1e | Saturraranen egondakoa |
| Atucha Barrenechea, Tiburcia | 26 | 1937/08/19 | 6h 1e | 1938/04/01 Askatua |
| Barandica Zubiaur, Concepción | 26 | 1937/08/19 | 6h 1e | 1938/04/01 Askatua |
| Bilbao Iturriaga, Felisa | 33 | 1937/08/19 | 1u | 1938/08/30 Askatua |
| Jauregui Careaga, Teresa | 48 | 1937/08/19 | 1u | 1938/08/30 Askatua |
| Mota Murgoitio, Gloria | 33 | 1937/08/23 | 6u 1e | 6h 1e konmutatua |
| Jugo Aspuru, Ramona | 41 | 1937/09/03 | 6u 1e | Saturraranen egondakoa |
| Urruchua Bustillo, Mº Teresa | 22 | 1937/09/15 | 6u 1e | 1940/09/26 Askatua |
| Aguado Picado, Antonia | 26 | 1937/10/10 | - | Los Camposen egondakoa |
| Elezcano Azqueta, Juanita | 32 | 1938/08/13 | - | 1939/01/01 Askatua |
| Aguirregoicoa, Micaela | - | 1938/09/19 | - | 1938/10/26 Askatua |
| Eguileor Uribarrena, Manuela | 18 | 1938/09/17 | - | 1938/10/26 Askatua |
| Eguirau Dañobeitia, Ángeles | 20 | 1938/09/17 | - | 1938/10/26 Askatua |
| Yurrebaso Aramburu, María | 21 | 1938/09/17 | - | 1938/10/26 Askatua |
| Larrea Aboitiz, Mercedes | 31 | 1938/09/17 | - | 1938/10/26 Askatua |
| Loroño Leiza, Milagros | 20 | 1938/09/13 | - | 1938/10/26 Askatua |
| Nuñez Gutierrez, Francisca | 20 | 1938/09/17 | - | 1938/10/26 Askatua |
| Oyarzabal San Miguel, Justa | 60 | 1938/11/24 | - | 1938/10/26 Askatua |
| Ugalde Larrinoa, Mº Dolores | 19 | 1938/11/23 | - | 1938/10/26 Askatua |
| Urquiza Ugalde, Carmen | 20 | 1938/09/17 | - | 1938/10/26 Askatua |
| Urrutia Ortuzar, Luisa | 22 | 1938/09/17 | - | 1938/12/02 Askatua |
| Viteri Arrese-Arroita, Mº Victoria | 16 | 1938/09/13 | - | 1938/12/17 Askatua |
| Soloeta Echevarria, Braulia | 54 | 1939/06/12 | - | 1939/08/03 Askatua |
| Depardieu Beitia, Emilia | 21 | 1939/07/04 | - | 1939/12/08 Askatua |
| Arostegi Goikoetxea, Faustina | - | - | - | - |
| Bustinza Ituarte, María | - | - | 12u 1e | - |
| Urizar Etxeberria, Rosario | 26 | - | - | - |

Urte (u) Hilabete (h) Egun (e)

Gerraostea eta Frankismo garaia, bereziki gogorra izan zen emakumeentzat. Adierazgarria da, adibidez, Venancia Ealo Jugo galdakoztarrak pairatu zuena. Bera 1937an fusilaturiko Valentin Mandalunizen ama zen, eta semearen alde justizia eskatzeagatik, tratu txarrak pairatu zituen Braulio Ibarreche alkate frankistaren eskuetan, eta gerora kartzelaratua izan zen.

La posguerra y el franquismo fueron especialmente duros para las mujeres. Es significativo, por ejemplo, lo que sufrió nuestra vecina Venancia Ealo Jugo. Madre de Valentín Mandaluniz, fusilado en 1937, sufrió malos tratos a manos del alcalde franquista Braulio Ibarreche solamente por pedir justicia en favor de su hijo, y posteriormente fue encarcelada.




Saturrarango emakumeen kartzela (Mutriku)

Cárcel de mujeres de Saturraran (Mutriku).



DEMETRI LARRAURI OLEA: Miembro de la comision de enlaces de Sòlidaridad de Obreros vascos; habiendo trabajado en favor del Gobierno rojo-speratista.

BLAS URIARTE URIARTE: Vocal de la Junta del Batzoki; se desconoce la demás actuacion personal del mismo.

FELIBABILBAO ITURRIAGA: (Digo Felisa Bilbao Iturriaga) : Perteneció a la Junta Local de Emakumes; durante el Movimiento han observado buena conducta.

JOSE AGUSTIN AROSTEGUI BILBAO: Miembro de la comision de enlace y de la Junta Municipal del partido separatista, y representando a Solidaridad de obreros vascos en aquella comision de enlaces; fué guardia de orden público.

AGUSTIN LECUE ESTANCONA: Fué vocal de la Junta Municipal del Partido nacionalista vasco; no se le conoce actuacion personal ni politica alguna.

MANUEL MADARIAGA ATUCHA: vocal de la Junta del Bachoqui, se desconoce su actuacion, aunque sí se sabe que no quiso aceptar el cargo de la Junta Investigadora de bienes que se le ofrecia en nombre del partido separatista.

TERESA JAUREGUI CAREAGA: Perteneció a la emakumes como presidentae en esta Localidad; aunque tuvo intervencion en las elecciones de Febrero de 1936; durante el Movimiento ha observado buena conducta no constando actuacion alguna.

JUANA ARANZAMENDI URQUIETA: Fué de la junta local de Emakumes; trabajó rabiosamente las elecciones de Febrero de 1936; durante el Movimiento ha observado buena conducta, no constando actuacion.

CONCHA BARANDICA ZUBIAUR: perteneció a la junta local de emakumes;

TIBURCIA ATUCHA BARRENECHEA: igual que la anterior

Galdakoztarren kontrako epaiketa. Bertan ikusten ditugu zenbait emakumeren inguruan jasotakoak.

Jucio contra varios galdakaoztarras, entre los que encontramos numerosas mujeres.

# Memoriaren ibilbideak

Itinerarios de la Memoria

Memoriaren ibilbideei esker, ibilbide seinaleztatuen bidez, Gerra Zibileko gertaera eta lekuetara hurbildu gaitezke. Izan ere, bizi izan zituzten pertsonen oroimenean irauten badute ere, askotan, belaunaldi berrientzat ezezagunak dira. Aldi berean, espazio horiek balioan jarriz, Euskal Herriaren memoria demokratikoa berreskuratu nahi da, baita espazio horien eraikuntzan eta defentsan parte hartu zuten milaka pertsonak gogoratu ere.

Los Itinerarios de la Memoria permiten acercarnos mediante recorridos señalizados a aquellos acontecimientos y lugares de la Guerra Civil que, si bien perduran en la memoria de las personas que los vivieron, resultan, a menudo, desconocidos para las nuevas generaciones. Al mismo tiempo, con la revalorización de estos espacios se pretende recuperar la memoria democrática de Euskal Herria y recordar a las miles de personas que participaron en la construcción y la defensa de estos espacios.

## Burdin Hesiaren Memoriaren Ibilbidea

Bilboko Burdin Hesia Arabako eta Bizkaiko 33 udalerri hartzen zituen defentsa-lerroa da eta 2017ko urritik kultura-ondasun gisa babestua dago, monumentu-multzo kategoriarekin. Gogora Institutuaren, Eusko Jaurlaritzaren, Arabako eta Bizkaiko Aldundien eta 33 udalen nahia da gune hori Memoriaren Ibilbide gisa berreskuratu eta balioan jartzea.

## Itinerario de la Memoria del Cinturón de Hierro

El Cinturón de Hierro de Bibao es una línea defensiva que abarca 33 municipios de Álava y Bizkaia y está protegida como Bien Cultural desde octubre del 2017, con la categoría de Conjunto Monumental. Es voluntad del Instituto Gogora, el Gobierno Vasco, las Diputaciones de Álava y Bizkaia y los 33 ayuntamientos recuperar y poner en valor este espacio como Itinerario de la Memoria.










## Burdin Hesiaren defentsa lerroa -Altamira-

Galdakao izan zen Burdin Hesiaren defentsa-egiturak seinaleztatu eta balioan jarri dituen lehenengo udalerrietako bat. 2017an, Burdin Hesiaren Memoriaren ibilbidea seinaleztatu zen Altamira aldean, “Galdakaoko Sektorearen” eta “El Galloko Sektorearen” defentsetan barrena, hainbat lerro gainjarrita zituena, lubakiak, babeslekuak, biltegiak, metrailadoreen habiak, tiratzaileen galeriadun gotorlekuak eta alanbradak. Burdin Hesia hautsi aurreko azken egunetan, lubaki horiek hainbat filiaziotako batailoiek defendatu zituzten, kasurako, Amunategi, Rebelion de la Sal, Malatesta eta Simon Bolibar.

## Línea defensiva del Cinturón de Hierro -Altamira-

Galdakao fue uno de los primeros municipios en señalizar y poner en valor las estructuras defensivas del Cinturón de Hierro. En 2017 se señalizó el Itinerario de la Memoria del Cinturón de Hierro en la zona de Altamira, que recorre las defensas del “Sector de Galdacano” y “Sector de El Gallo”, compuesta por varias líneas superpuestas de trincheras, refugios, almacenes, nidos de ametralladoras, fortines con galería de tiradores y alambradas. Los últimos días anteriores a la ruptura del Cinturón de Hierro, estas trincheras fueron defendidas por batallones de diversas filiaciones, como el Amunategi, Rebelión de la Sal, Malatesta y Simón Bolibar.

## Memoriaren ibilbidea -Herrigunea-

Galdakaoko Gerra Zibilaren oroimeneko espazioak berreskuratzeko hasierako urratsean, 5 puntu interpretatu dira hirigunearen barruan, bonbardaketei, babeslekuei, kuartelei eta errepresio-zentroei buruzko informazio-panelak ipiniz. Ibilbide txiki batek lotzen ditu puntu horiek, memoria historikoa berreskuratzeko aukera emanez.

## Itinerario de la Memoria -Urbano-

En un primer paso para la recuperación de los espacios para la memoria de la Guerra Civil en Galdakao, son 5 los puntos que se han interpretado dentro del casco urbano, dotándolos de paneles informativos sobre los bombardeos, los refugios, los cuarteles y centros de represión. Un pequeño itinerario une estos puntos, permitiendo recuperar su memoria histórica.


Memoria ibilbidea_Herrigunea
Itinerario de la Memoria_Urbano
Gandasegi
Tximiolarre
Inuntziaga
Ellakuria
Plazakoetxe
ELEXALDE
GALDAKAO
La Cantábrica
La Dinamita
Zugatzu
0
500 m
MEMORIA IBILBIDEAK
ITINERARIOS DE LA MEMORIA
BURDIN HESIA_DEFENTSA LERROA
CINTURÓN DE HIERRO_LÍNEA DEFENSIVA




## 1- Altamira

# Memoria ibilbideak_Burdin Hesia

Itinerarios de la Memoria_Cinturón de Hierro

## 2- Bekea-Bekelarre

Ibilbide hau oraindik proiektuan dago. Momentuz ez dago seinaleztatuta.

Este recorrido se encuentra en proyecto.De momento no está señalizado.









©Argazki zaharrak: Gipuzkoako Artxibo Orokorra eta BNE



1937/06/18.

Usansolo eta Bekea. Hegazkinetik ateratako argazkia.

▼ Vista aérea de Usansolo y Bekea

▲ 1937/06/18.

Plazakoetxe eta Tximiolarre. Hegazkinetik ateratako argazkia.

Vista aérea de Plazakoetxe y Tximiolarre

# Galdakao 1936-1937



*memoria galdu ez dadin*

Galdakao Gogora

Galdakaoko Udala

Memoria ibilbideak
Itinerarios de la Memoria
gogora